

Burgosko euskal toponimiaren ildoak gehituz

Luis Maria Mujika

Pozgarri bada beti euskara historikoaren aztarna berriak aurkitzea, hainbatago oraindik aurkikuntzak egungo euskararen esparrutik kanpokoak badira. Hain zuzen, bada urte mordoska Merino Urrutia errioxarrak Errioxa Garaia eta Ezkarai aldeko euskal toponimiaren berri eman zigula liburuki batean; bere lehia, gehienbat, Ezkarai aldera mugatu zen, Burgosko probintziaren egungo muga barruetan aurkitutakoak hain heatuki aztertu eta bilduak izan ez zirelarik. Beraz, guk 1150 kopuruko euskal toponimiazko multzoa jasoa dugu azken urteotan (1984 urteko udaldian hasita), eta toponimia horren sarritasuna aberatsa da, bereziki, Pradoluengo inguruko herrietan, hots, Arandio edo La Demanda mendikatearen babesgune berezian, Valdelaguna haranekoak ere intentsitatearen aldetik biziki interesdunak direlarik. Merino Urrutiak berak aitortzen digunez, bere aportazioak partzialak ziren -eta, gehienbat, 1932 aldean Guilermo Riitwagen-en emaztekiak ahoz bilduriko lekukoetara mugatuak-. Guk hemen aipatzen herri asko ikuskatua dugu eta bertako lekuko batzuen ahozko testigutza ere jasoa, kartulario, kastatro eta jabetzako erregistroetan bilduriko idatz-adierazpenez gain.

Hirugarrenez ekiten diogu lan honi, ezen, bere aurretik Euskaltzaindiaren *Iker-6* liburukian “El euskara en la toponimia de Burgos (nuevos testimonios)”, 311-347 eta “Toponimia vasca en Burgos,” *XI Congreso de Estudios Vascos*, 1991, 423-432 argitaratu genituen. Lehenengo lanean –zerrenda zehatzez gain- mila ehun eta piku euskal tokizenen alderdi filologiko batzuk aztertzen genituen, hau, alde fonetikoak, fonetismo zenbait, onomastikan integraturiko lexikoaren azterketa, eta, orobat, toki-zen atzizkigintza, beti ere alderdi dialektalak kontuan izanik. Bigarren lanean, zehazki, eskualde bateko toponimia eman genuen, hau da, Burgosko Beloradoko epai-barruti barruan ematen den euskal onomastika, bertara Ezkerra, Santa Olalla, Villagalijo, Pradoluengo, Fresneda de la Sierra eta Pradilla herrietako toponimia tipiaren testigutza idatziak eta ahozkoak ekarriz. Eskualde hori, dudarik gabe, Burgosko probintzian aberatsena da euskal toponimiaren aldetik behatuta, herriak Arandio mendizerraren babesean -eta Tiron ibaiaren ibilbide garaienean- kokatzen baitira.

Egungo lanean, beste eskualdetako toponimia ere jasotzen dugu, bat sarri eta joriagoa -oraindik Arandio edo La Demanda mendizerraren esparruari lotua, bai Pradoluengo inguruetan -eta bai Valdelagunako eremuan-, eta alboetara Arlanzon ibaia, Bureba eta Oca aldeko lautadetara barreiatzen dena -azken hau askoz bakana- goa izaki-.

Burgos aldeko euskal toponimia, noski, Ezkarai aldekoaren jarraipena da, eta tokizen zenbait probintziaren beste aldean ematen da, maiz, mugakide delarik. Denetan, antzeko ezaugarriak gertatzen dira, alegia, gaztelaniak mendeetan euskal leku-izenetan eginiko eragin fonetikoak, eta ondorioz sorturiko adulterazio eta urradurak. Mendialdeko geografia malkartsu eta izurtsuak, noski, lautadakoak baino hobeto gorde ditu adierazpen lexikalak, eta mirestekoa da, dagoeneko bederatzirehun bat urte baino gehiago duen tokizen zenbait nola gorde den. Beharbada, euskararen ahozko presentzia hemengo lekuetan orain seirehun bat urte itzaliko zen, eta demografiaren gorabeherak eskualdean handiak izan dira, gaur egun, gehienbat depresio guneak izaki. Oja eta Tiron ibaien ibilbideak gertatzen dira adierazkorrenak euskal toponimiaren aldetik, Ezkarai eta Burgosko probintziaren ekialdeari dagokionez. Merino Urrutiak mapa egokien bitartez erakutsi zigun bertako geografia anitza, eta mapa horiei behatuta, nabarmen da euskal toponimiaren nukleorik aberatsena Pradoluengo ingurukoa dela, bere eskuinean, Logroñoeko Errioxa Beheitikoa Ezkarai, Ojacastro, Saturde eta Saturdejoko eskualdea atzematen delarik.

Ptolomeok eta beste historigile aintzinakoek zehaztaper batzuk utzi zizkiguten Euskal Herria eta bere inguruko lurretako tribuen egitateaz. Erromatar historigileak baskoin, barduliar, karistiar, autrigoin tribuez mintzo ziren, eta hegoalderago Errioxa beheko lurretan beroin eta pelendoien jentilizioak gogoratzen zizkiguten, besteen artean. Dakigunez, iparraldeko barduliar eta karistiaren eremu gehiena mintzairaz euskalduna zen, eta, orobat, baskoinena, nahiz behetiko eremuetan, jada, erromatarren garaian euskararen aztarnak itzaliak egon. Autrigoinen eremuan, berriz, euskararen lekukotzak eskasak ziren, zabalgunen nagusienean, behintzat. Esan beharra dago, Errioxa Garaia, Bureba eta Tiron eta Oja ibaien gune gehienak autrigoinen mendekoa zirela, eta euskal ezaugarritza duen toponimia anitz eskualde horretan kokatzen dela. Iritziak iritzi, aburu asko filologoaren artean eskualdeko euskaltasunari buruz. Batzuen ustetan, euskararen presentzia aintzinakoa da, hau da, erromatarren aurretikoa, eta egungo toponimo anitz ordukoa izan daiteke. L. Mitxelena, Ormaetxebarria, Pérez de Urbel eta beste batzuek, berriz, lur haietako euskaltasunari goi-ertaroko aintzinasuna egotzen diote, soilik, hau da, mairuen eraso arbuiatu geroztikoa, bitarteko lurak eremu geratzean iparraldeko kristauek birpopulatu zituztenekoa; hain zuzen, euskararen presentzia ertaroan emaniko errepoplazio faktoreei lotuko litzaieke, populatzaileak, hain zuzen, Arabako lurretatik jaitsiriko euskaldunak izaki, gehienbatean. IX eta X mendeetan goiko lurretatik, eta, hurbilago, euskaraz hitz egiten zuten Arabatik jaitsiriko euskaldunen adierazpena litzateke egungo toponimia, ezen eta, tokizenetan isladatzen den euskararen tipologia *mendebalekoa* da, gehienbat, aitz / *atx*, soro / *solo*, berri / *barri*, hiri / *uri* / *uli* / *ulli* (poblado), urritz / *urretx* (*Urrez* toponimoa), *-dui* atzikia, beltz / *baltz* aldakiak azaltzen dira, nahiz ez beti. Ezin da ahanzi Errioxako herri eta populazioen izendegietan nabarmen direla *-uri* (poblado) osagaiez amaiturikoak, *Otxanduri*, *Ollauri*, *Nafarruri*, *Gipuzuri*, *Galbarruli*, *Semenuri*, *Herramelluri* modukoak- Toponimo hoiek, noski, errepoplazio baten adierazle dira *-uri* delakoak “poblado” esan nahi baitu, eta, hain zuzen, mendebaleko euskararen (Bizkaian eta Araban goikoen moldera *Enekuri*, *Maruri*, *Obekuri*, *Ullibarri*, eta abar agertzen direlarik). Bestalde, kontuan edukitzekoa da Elizaren erakunde administratiboak mende askotan, nolabait, aspaldiko bereizketa dialektalaren adieragarri izan zirela, Calahorrako eliz-barrutiak, adibidez, Gipuzkoan egun bizkaiera mintzatzen duten lurak bere esparrukoak zituen. Banaketa administratibo bera Elizaren aldetik Iruñeako eliz-barrutiari dagokionez, ezen egun goi-nafarrera mintzatzen duten herri gehienak (Hondarribia, Irun, Oiartzun, eta abar...) Nafarroako eliz-barrutian sartzen ziren, aspaldiko baskoin tribuaren lurraldetasun-aztarnak gordez.

Egia esateko, hipotesi anitz da aspaldiko tribuen banaketa eta hedapen-guneei buruz, eta gutxi da Penintsulako aintzin egoera lingustikoaz dakiguna. Araban, zehazki, hiru tribuak biltzen ziren *Trifinium* (Treviño) delakoan, eta lurralde hori egoera kultural berezi baten kokagune zen. Autrigoiak mendean zeuden Valdegobia (Gaupe), Flabiobriga eta Virovesca (Briviesca) hiriak, eta iparmendebalean euren muga egungo Cantabrian zegoen Laredo eta Ason ibairen ondoan; hegoaldera, berriz, egun euskal toponimia aurkitzen den Oka mendiak eta Tiron ibaiaren ibilbidean. Euskararen presentzia artarora soilik ekartzen dutenen hipotesia, bestalde, ez da osoro kontrajartzekoa autrigoin tribuaren eremuan aspaldiko euskal mintzairaren nukleo isolatu berezi batzuk gordetzearekin. Ezin da albora utzi Nafarroako erreinuaren agintea Logroño eta Juarros aldeko lurretara hedatzen zela, ezen Logroño ez da atxikitzen Gaztelara XI. mendearen amaiera arte. Naiara 933. urtean konkistatzen zaie mairuei, eta Briones eta Cenicero 735.ean. Euskal tankera duen -edo euskaroidea den- Burgos eta Errioxako toponimiak arazo historiko bereziak ditu, baina, denetan egiatiena da gure hizkuntzaren ezaguarriak dituen toponimoen multzoa ez dela urria. Beraz, behin bateko Euskal Herriaren mugak egungoak baino zabalagoak ziren, bai, ekialdean Pirinio mendikatearen lerroan Andorrraraino, gutienez, eta mendebalean Burgosko lur berezi batzuetaraino, bere ukituan Errioxa Garaia eta Beheitikoaren lekukoak kontuan izanik.

I.- EUSKAL TOPONIMOEN ESKUALDE BERRIAK

Dudarik gabe, La Demanda edo Arandio mendizerraren bi aldetara ematen da Burgos eta Errioxako euskal toponimiaren gunerik aberatsena. Esan daiteke, Pradoluengo, Santa Olalla, Pradilla, Espinosa del Monte, San Clemente, Santa Cruz del Valle Urbión, Garganchón, Villagalijo, Fresneda, Valmala bezalako herrietan toponimia, batzuetan, ehuneko % 40 edo 50-ean euskaldun dela oraindik, nahiz ahozko euskara itzalita egoteak -hainbat mende geroztik- onomastikan aldaketa, desitsuratzeko, arrotze-prozesuak, eta abar suposatu. Arandio mendizerrak, hain zuzen, Haro inguruko zabaldiek baino babesleku hobea eskaini bide die euskal toponimoei, nahiz eta geografikoki hango lurrak hegoalderago egon. Eskualdearen toki malkartsuak, herriak komunikabide zabaletatik, gehienbat, aparte kausitzeak, geografiaren isolamenduak eta demografia urriak lagundu bide diote iraupen horri. Hain zuzen, Pradoluengo aldean ez-ezik, Valdelagunan barreiatzen diren herri eta alorretan euskal toponimiak iraupen-lehia berezia erakusten digu, eta, aldiz, asko murriztagoa Bureba, Oca eta Arlanzón ibaiaren erdi eta azken ibilbidean, non gure lurri mendiek jada ez dien beharrezko babesa eskaintzen.

Hurrengo zerrendetan, bada, lau eskualde aipatuko ditugu euskal toponimoei dagokienez: 1) **Tiron ibaiaren ibilbide garaian eta erdian** Arandio mendizerraren babesgunean ematen direnak -ugarrienak izaki-, Eterna, Espinosa del Monte, San Clemente, Santa Cruz del Valle Urbión, Rábanos, Garganchón, Valmala herrietakoak (kontuan izan, esan dugunez, beste lan batean argitaratu genituela, zehazki, Pradoluengo, Fresneda, Pradilla, Santa Olalla, Villagalijo eta Ezkerrako toki-izenak). 2) **Arlanzón ibaiaren ibilbide garaia eta erdikoak**, Pineda de la Sierra, Espinosa de Juarros, Río Cabado, Villorobe herriena, besteen artean; goikoekin erkatuta, askoz murriztagoak direnak. 3) **Valdelaguna ibarraren barnekoak**; hauek ere Arandio mendizerraren babesean, eta Mencilla aintziraren hegoaldean; bertako toponimia Soriako lurretatik hurbil kokatzen da, eta Burgosko Salas de los Infantes herriaren epai-barrutiaren mugetara hertsitzen da, gehienbat. Aipatzekoak dira Neila,

Barbadillo de los Herreros, Huerta de Arriba, Tolbaños de Abajo herrien barrutikoak. Dударik gabe, bertako euskal tokizenen kopurua Arlanzón ibaiaren ildoari darraiena baino ugariagoa da, baina ez Pradoluengo ingurukoa bezainbatekoa. **4) Bureba eta Oka mendien** gunean sartzen den toponimia, Arandio mendizerratik aparte gune lauagoetan hedatua. Bureban, gaur egun, euskal toponimo urri gordetzen da. Bertako gune esanguratsuenak Espinosa del Camino, Villafranca de Oca, San Felices de Oca dira.

Orobat, Burgosko lurretan ematen diren beste toponimo tipi eta nagusiak aipagarri, Arandio mendizerraren urrunean aurkitzen direlarik ere, *Urbel*, *Zalduendo*, *Urrez*, *Urkiza*, *Ibeas* bezala. Kurioski, euskal toponimia sarria den tokietan ere egungo toponimia nagusia, gehienbat (*Ezkerra*, *Urrez* eta beste urri batzuk kenduta) gaztelaniaztatua aurkitzen da, Pradoluengo, Fresneda, Pradilla, Santa Cruz del Valle, Avellanosa, Eterna herri-izenetan suertatzen denez, nahiz bertako toponimia tipi gehiena aintzinako euskaltasunaren lekukotza esanguratsua gorde. Auzia, bada, toponimia nagusia (erdalduna) eta tipia (euskalduna) artean datza; administrazioak eta gaztelaniar mintzairaren gailentasun sozialak eragin handia ukan du aspaldidanik toponimo nagusien erdalduntze horretan, tipiek, aldiz, modu soilagoan euskaldun jarraitzeko oztoporik aurkitu ez dutela.

II.- TOPONIMOAK ESQUALDEKA

Goian esan dugunez, toponimoen lekukoak eskualdeka emanen ditugu, eta, lehenik, Arandio edo La Demanda mendizerraren babesgunekoak, non euskal toponimoen multzo nagusiena bertakoa den. Gero beste eskualdetakoak jasoko ditugu. *Iturriak* aipatzean, gure zerrendako gehienak XIX mendekoak dira, hots, katastroen izendegietatik hartutakoak *erreg.* (erregistroa) izenpean (eta, zehazki, Belorado Jabetzako Erregistrokoak, Briviesca eta Salas de los Infantes-koekin batera), baina badira beste urri batzuk Kukullaga eta San Pedro De Arlanzako Kartulariotik jasotakoak, eta, orobat, azkeneko horiek baino modu askoz ugariagoan Marques de la Enseñadaren Catastro-tik (*Archivo de la Diputación de Burgos*) -bereziki, 1751-52 urteei dagozkienak- bildutakoak. XIX. menderako beste tokizen-iturria Burgosko *Archivo Histórico Provincial* delakoan kokatzen den Jabetzako Erregistroa da. Beste izen batzuk Merino Urrutiaren zerrendakoak dira, baina urrienak. Hemen ezagutzera ematekoa da, herrien arabera, ahozko lekuko zenbaiten izena: Germán Rubio Ontoso (Barbadillo de los Herreros), Emilio González Rubio (Ezkerra), Anastasio Bartolomé Uzki (Villagalijo), Sebastián Grijalba (Espinosa del Monte), Restituto Córdoba Rivera (San Clemente), Pedro Echavarría Cámara (Pradoluengo), Eulogio Garrido Garrido (Puras), Agapito Hernando Garrido, Natividad Sevilla Hernando (Santa Cruz y Soto del Valle), Justo Rábanos Hernando (Fresneda de la Sierra), Agapito Hernando Corral (Santa Olalla, Villagalijo), Faustino Hernando Cámara (Garganchón).

1. *Tiron ibaiaren ibilbideko euskal toponimoak.*

Eskualde honek bakarrik gordetzen ditu Burgos probintziako euskal toponimo guztien hiru laurdenak, Tiron ibaiaren ibilbide garaia –bere adarrak ahantzi gabes- eskualde menditsuan aurkitzen da, eta euskal tokizenen lekukotza ia Beloradoren pareraino luzatzen da goitik beherako intentsitate-mailan. Tiron ibaiak bere behe-ibilbidean Errioxako lurretan baino euskal toponimo urriago du. Hain zuzen, Logroñoeko probintziaren mendebalean euskal toponimoen presentzia, Ezkaraira ez ezik, Haro

inguruetara hedatzen da toki lauetan, baina, beti ere, La Demanda azpiko lurretan baino murriztago. Dagoeneko emanak ditugularik Pradoluengo, Fresneda de la Sierra, Pradilla, Santa Olalla, Villagalijo eta Ezkerrako euskal tokizenak, hona leku-ko berriak:

a) *Avellanosa, Eterna*:

Eterna herria Villagalijo-ren ekialdera aukitzen da, eta bere izena *Heterrena* zen 945. urtean. Avellanosa, grafia aldatuta, *Abellanosa* modura ere ezaguna da, baina guk bestea erabiliko dugu.

Angita (Avellanosa). *Aritxa* (Avellanosa), itxuraz, *aritz*-aren (roble) formula bustia. *Bastea* (soroa, erreg. 621). *Belasko* (lur-saila). *Buzkarras* (agian, *Bizkarras-loma-* baten ildokoa, erreg. 38. *Burkarros* aldakiak bere adulterazioa dirudi. Ikus Arch. Hist.Prov. Reg. Prop. Leg.533, 1850, urtea. “Un prado do dicen el frontal de Burcarros de media fanega, surca por cierzo rio, ábrego de la Iglesia de Fresneda y solano rio tambien” (Ibidem). *Ezkarna* (soroa, erreg. 610); agian, **Ezkerrana* baten sinkopa, gaztelaniar azentu bortitzaren eraginez, maiz, - arana -*arn* (-*arana*) bezala ematen baita atzetonikoaren erorketaz. Bide berdinetik bestetan *Ezkargaña*, *Azkarro*, *Azkarrio*, *Eskarriturri*. Eskualdeko toponimian “arce campestre” edo *astigarra* adierazi bide du. *Gallindona* (Eterna, soroa). *Guzkarros* (lur-saila, Arch.Hist.Prov. Reg. Prop. Leg.533, 4, 1850. urtea, “Otra en Gurcarros de una fanega surca por solano Lorenzo Esteban” (Ibidem). *Labartenia* (lur-saila, Avellanosa). *Larrea* (*La Rrea* idazki batzuetan, ohiko artikulatu erromanikoaren sasi-interpretazioaz; Arabako toponimian ere, maiz, *Larrain* > *La Rain* bezala, Avellanosa). *Matxabela* (lur-saila, Avellanosa). *Maugaluzea* (soroa, erreg. 605). *Moskiza* (erreka, erreg. 443), *Muiurua* (belardia, erreg. 740). *Ordokia* (soroa, erreg. 1288; bere esanahia “llanura, planicie BN, L, R, S, *ordo* eta (*t*)*oki* osagaietatik (*Orkidia* ere azaltzen da, baina izan daiteke goikoaren metatesi sasizkoa). *Orokiza* (soroa eta muinoa, erreg. 410). *Olleta* (lur-saila, Eternakoa; fonetikoki aipatzekoa albokariaren palatalizazio, *Zabala* > *Zaballa*, *Zaballazu* kasuetan bezala, hizkuntza erromanikoen ukituan gertaturiko fenomenoak izaki hori). *Pitxarria* (*Pitxania?*, soroa, erreg. 346). *Pullarana* (soroa, erreg. 349). *Rolaisa* (Avellanosa). *Rolana* (*Rolada?*, soroa erreg. 64, 58). *Trinkitxona* (lur-saila, Eterna). *Tubarria* (soroa, erreg. 68; agian, **Iturbarria* baten murrizketa lehen posizioko bokalaren erorketaz; aipagarri hemen -*barria*, mendebaleko euskararen aldakia). *Txarranplia* (soroa, erreg. 68). *Txazkibela* (soroa, erreg. 276; tokizenaren bigarren osagaiak -*gibela* dirudi, txistukariaren osteko herskariaren gorketaz). *Txaskina* (soroa, erreg. 380), *Vallizarga* (soroa, erreg. 104). *Valderrimotxa* (larratza, erreg. 1337). *Valtunate* (?) (soroa, erreg. 68). *Zalato* (soroa, erreg. 232). *Zarbida* (¿), soroa, erreg. 636). *Zarrazina* (lur-saila, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 533, 9.”...Donde llaman Zarrazina lindante por regañon y solano herederos de Aniceto Esteban” (Ibidem). *Zuerta* (lur-saila, Eterna). *Zularna* (belardia, erreg. 395; -*arna* amaierak -*ar(a)na* “valle” islatu bide du, azentu atzetoniko arrotzaren eraginez).

b) *Belorado*:

Herri hau Logroñotik Burgosko hiriburura doan errepidean kokatzen da, eta mendien babesetik aski urrun, lautadako kokagunean, hain zuzen. Belorado eskualdeko Epai Barrutiaren buru da. Euskal toponimoak urriak dira bertan: *Balza* (lur saila, alboko herritan ere toponimo bera). *Barkar* (lur-saila, agian, hurrengo *Berkolar*-en aldaki murriztua). *Baroa* (mendia). *Berkolar* (mendia). *Zalagabiña* (antza, *Zagalaviña*-ren metatesia).

c) *Espinosa del Monte (San Clemente eta San Vicente del Valle):*

Hiru herriek euskal toponimia multzo handia dute, eta tokizenen zehaztapena erreka, lur-sail, soro, malda eta bestetan barreiatzen da. Lehenengo bi herriak Fresneña-tik hurbil geratzen dira, Logroñoko Errioxaren mugatik oso hurre, eta Santa Cruz del Valle, Fresneda eta Pradoluengorekin bertako euskal toponomastika ugaria da. Nabarmentzekoak, besteen artean, *Zabaleta*, *Lameturria (Laminiturria)*, *Turriosa (Iturriotza?)*, *Kroziga (Kuruziaga ?)*, *Mendiko*, *Kobaldia*, *Kañarana*, *Garaldea*, *Zanzarrias*. Hemengo tokizen anitz inguruko herrietan ere aipagarri, mugakide bezala, maiz.

A, B

Almendia (Espinosa lur-saila, Arch.Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 531,8, 1849. urtea); agian, lehen silabak *al* gaztelaniar artikulua adierazten du, *Mendia* soilik ere ematen baita; euskararen ezaguera galtzean, posible da tokizenei preposizio eta artikulua kasuarekin Neila > *Aneila (A Neila)* kasuan bezala); bestalde, euskal interpretazio baten baitan sartzen da *Armendia* aldakia, lehen osagaia *Arri* > *Ar-* konposakerazkoa izaki, *Alkorta* kasuaren moduan). “La mitad de otra en Almendia termino de esta Villa de doce celemines” (Ibidem). *Amezia* (beharbada, *Mezkia*-ren aldakia, lehen bokala norabidezko preposizioa izaki). *Andeleturria* (bigarren osagaia *-iturria*, beheerago *Fuenteleturria* hibridoazaltzen delarik). *Arana (Haranna)* bezala 1090 urtean. “Et alia terra in Haranna, et una serna ad S.Sebastianum ad fontem”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 280 or., bezer. or. 98). *Arangurra* (Espinosa lur-saila, Arch. Diput. Leg. 696, 16 ecl., 1752. urtea. “...Da fruto a segundo año, en termino que llaman Arangurra (?)...” (Ibidem). *Armendia* (lurra; osagaiak *ar-* (piedra) eta *-mendia* (monte). *Arnasara (?)* (Espinosa lur-saila; lehen osagaia *ar(a)na-* izan daiteke, bokalaren erorketaz. *Arrearana* (Espinosa lur-saila; bigarren elementua, orobat, *-arana*). *Arto* (San Clemente). *Arzea* (lur-saila). *Arzerana* (ausaz, *Arrearanaren* sasi-aldakia. “Sembradura de segunda calidad en el termino que llaman Arzerana da fruto con descanso de un año”. Arch. Diput. Leg. 696, 20, 1752. urtea). *Baganeda* (Espinosa lur-saila; lehen osagaia *bago* daiteke *Bagadia*, *Bagadoi*, *Bagoeta* tokizenetan bezala, amaierak tokizko *-eda* gaztelaniarra islatzen duela “Otra de cuatro celemines en la Baganeda del campo surca al regañon Miguel Garcia Martinez y al cierzo de Manuel Manso vecino de San Clemente”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 7, 1849 urtea). *Balladarra* (Espinosa lur-saila. “...En el termino que llaman Valladarrá da fruto con descanso...” Arch. Diput. Leg. 696, 106, 1752 urtea). *Bandabias* (agian, *Landabia* baten aldakia. Erreg. 318. “Otra de diez celemines en Vandabias surca por solano y cierzo Escuela de Fresneda y por abrego Iglesia de Espinosa”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 531). *Baridana* (Espinosa lur-saila. “...En el termino de Varidana (Varidarra?) confronta con Zierzo y Abrego con terrenos de Conzejo”. Arch. Diput. Leg. 696, 39, 1752. urtea). *Bedarkula (?)* (San Vicenteko lur-saila). *Bitxona* (San Clementeko lur-saila; agian, **Bitxarana* baten sin-kopa. Arch. Diput. Leg. 654, 18).

E, G, I, K

Eskijarana (lur-saila. Bigarren osagaia *-arana* (valle), aurretiko velareak **Eskiza-* baten ildoak adierazten duelarik). *Ezkarro* (*ezkar,azkar* (arce), *o-* amaierak eranskin erromanikoa islatzen bide due. “...Da fruto con descanso de un año en el termino que llaman el Ezcarro”. Arch. Diput. Leg. 696, 141, 1752. urtea). *Ezkurna* (San Vicenteko haitza; amaiera *-arna (arana)* izan daiteke. *Garaldea* (lur-saila. *Garai* eta

-alde osagaietatik; -alde osagaiaz Burgosko toponimian oraindik *Zumaldea*, *Onaldea*, *Rozaldia*, (*I)turraldea*, *Kobaldia*). *Garatia* (San Clementeko lur-saila, *garai-* eta *-ate* (portillo alto) konposagaietatik). *Garduza* (San Vicenteko lur-saila). *Garraldea* (*Garaldea*-ren aldakia, San Clementeko lur-saila. “Una heredad de dos celemines en Garaldea surca cierzco calleja regañon Quintin Garcia, solano Calles”. Arch. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 18, 1851.urtea). *Gomenzulla* (lur-saila, amaiera baliteke *-olla/ulla* bustidurazko atzizkia izatea. 950 urtean *Gumenzula*. “Et ad gubernationem armentorum Larrehederra et Gumenzula in serra, et in monte de Auca Berozzal, et in rivuo de Onia”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 46 or., bezer. Or. 97). *Haranna* (lur-saila, 1090. urtekoa. *Iguna* (lur-saila, erreg. 1867). *Inagorana* (San Clementeko soroa “Una heredad de catorce celemines de sembradura en do dicen Inagorana termino de San Clemente del Valle surcante al regañon del Beneficio de ella”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 20, 1851 urtea). *Ironda* (Irondo) (Espinosako lur-saila. “...De tercera calidad en el termino do llaman Ironda da frutto con descanso de un año”. Arch. Diput. Leg. 696, 20, 1752. urtea). *Irondo* (Espinosako lur-saila). *Karrandea* (belardia eta lur-saila, erreg. 1161; ausaz, *Garraldea*-ren sasi-aldakia). *Kobaldia* (zona del cueva, erreg. 1935). *Koloziga* (*Kroziga?* eta *Meturria* (*Laminiturria?*, erreg. 1727). *Kroziaga* (San Clementeko lur-saila, 1753. urtea; **Kruziaga* baten formula beranta bokaleen irekieraz gaztelaniar fonetikaren eraginez). *Kuturria* (Espinosako lur-saila; bigarren osagaia, probableki, *-(i)turria* (fuente).

L, M, O

Larrahederra –dehesa hermosa-, 950 urtekoa. “Et ad gubernationem armentorum Larrahederra et Gumenzula cum exitu et regressu et omni integritate...”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 44 or., bezer. or. 36. Orobat, hurrengoa: “...Cum arboribus fructuosis et infructuosis et ad gubernationem armentorum Larrahederra eta Gumenzula in serra, et in monte de Auca Berozaal, et in rivuo de Onia”. Ibidem, 950. urtean, 46. or., bezer. or. 97). *Lameturria* (*Laminiturria*-ren formula beranta lehen bokalaren irekieraz, “fuente de las lamias”. *Lamiturri* 950 urteko lekukoa. “Unum monasterium S. Paulum iuxta villulam Spinosa, cum exitu et regressu, id est, de illo fonte qui vocatur Lamiturri, et inde per illum vallem usque ad villam...”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 44 or., bezer. or. 33. Beste aipu bat XVIII. mendean: “...Sembradura de segunda calidad, en el termino, que llaman Lamiturria da frutto con descanso de año”. Arch. Diput. Leg. 696, 60, 1752. Urtea). *Larran* (lur-saila, probableki, **Larrain* baten aldakia). *Leturria* (**La Iturria*-aren sinkopa, baldin jatorrian *Lameturria* ez bada; erreg. 1184). *Madruete* (?) (mendia, erreg. 1781). *Maranagutia* (San Clementeko lur-saila; bigarren osagaia *-gutia* (menor) *Regutia* hidronimoan bezala). *Marrangutia* (*Maranagutia* ?). “Una heredad de sembradura, tres celemines y medio llaman Marrangutia termino de dicho S. Clemente”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 3). *Massoa* (mendia, 945. urteko toponimoa. “..Et de alia parte sicut est illa via que venit de monte Massoa similiter usque ad villam”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 44. or., bezer. or. 93). *Muramangutia* (probableki, goiko *Maranagutia*, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 11). *Mentikillo* (*Mendikillo*, Espinosako lur-saila. “...Que llaman el Mentikillo: confronta por Zierzo, abrego...”. Arch. Diput. Leg. 696, 101, 1752. urtea). *Mendiko* (“del monte”; erreg. 46). *Mendiko Zorroza* (Espinosako mendia 1090. urtean konstatatua. “...Et alia terra in via de Espinososa sub Mendico Zorroza...”. Cartulario de San Millan de la Cogolla, 280. or., bezer. or. 98). *Mitxote* (lur-saila). *Onsastia* (*Osastia*, *Osartia?*, Espinosako lur-saila). *Osastia* (Espinosako lur-saila, bigarren osagaia *sagastia* (manzanal)/*sagar-*

tia daiteke; behe-rago *Sagartia*, 1752. urteko tokizena. “Una heredad de tres celemines en Osastia termino de Espinosa, surca al cierzo y abrego tiesos, al solano Bernardo Martinez vecino de dicho Espinosa”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 4, 1848. urtea).

P, S, T, TX

Palagubia (San Clementeko soroa. “Otra de ocho celemines en Palagubia surca por solano Cristobal Ortiz vecino de Fresneda por los demas aires tiesos”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 10, 1849. urtea). *Sagastia* -gorago *Sagartia*- Espinosako lur-saila. “...Da fruto cada año, en termino que llaman Sagastia, confronta por Cierzo y abrego con terrenos de Conzejo”. Arch. Diput. Leg. 696, 3 ecl., 1752. urtea). *Sarana* (agian, **Susarana*, San Clementeko lur-saila). *Sarasitas* (hau ere *Sagasti*-ren ildokoa, *sarats* “sauce”-etik “Otra de cinco celemines en Sarasitas, solano San Millan, cierzo Camino”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 12). *Susarana* (San Clementeko lur-saila, erreg. 2996). *Tikuarana* (lur-saila; bigarren osagaia -*arana* (valle). *Turriozza* (probableki, (*I*)*turriotza*-ren -fuente fría- ildokoa, Pradoluengon *Turroza* ematen delarik; lehen bokalaren galeraz *Txarriturre*, *Turbero*, *Zarrakaturrias*, *Turruzaia*, *Turralde*, *Kuturria*). *Txaburtun* (*Txaburtun*, Espinosako lur-saila. “...Que llaman devajo de Chaburtun da fruto con descanso de un año”. Arch. Diput. Leg. 696, 110, 1752. urtea; orobat, *Txabortun*. “Otra de diez celemines en Chabortun, surca al abrego barranco”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 4, 1848. urtea).

U, V, Z

Usartia (lur-saila, erreg. 1704; bigarren osagaia -*arte*; bere aldakiak, probableki, *Usastia* (*Usartia* ? eta *Osartia* / *Osastia*). *Urtxona* (San Clementeko lur-saila, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 18). *Valdeburena* (itxuraz, *Valdegurena*-ren aldakia; bigarren osagaia -*gurena* “superior o el más alto” daiteke, tokizen hibrido izaki. “Otra en Valdeburena termino de las tres villas de cuatro celemines, surca por solano Enrique Pascual vecino de Espinosa”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 10). *Valdegurena* (“*Valle superior*”, erreg. 107). *Valladarr*a (ikus gorago *Balladarr*a; lehen elementuak *vall(e)* dirudi). *Zabaletas* (erreg. 270, gaztelaniar pluralgilea atxikia duela). *Zabalitas* (aurrekoaren aldakia. “...Y tres celemines en una heredad de fanega y media en Zabalitas” Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 12). *Zaballa* (Espinosa lur-saila; palatalizazioak, -*ola* / *olla* kasuan bezala, hegoaldeko formula adierazten du, eskualde erromanizatu baten ukituan sortua). *Zalabita* (*Zabalita*-ren metatesia; San Clementeko lur-saila, erreg. 1829). *Zagalaviña* (inguruko herrietan tokizen bera, maiz; lehen osagaia **Zabala*-ren adulterazioa izan daiteke; Garganchón-en bada *Zagalaribera*). *Zanzarrias* (San Clementeko lur-saila. Bigarren osagaia, itxuraz, *Sarria* (espeso, lugar de espesura). “Otra heredad la Zanzarrias digo la mitad de dicha heredad toda ella de una fanega surca por cierzo Maria Ribera”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 10, 1849. urtea). *Zazuarrilla* (?) (erreg. 408).

d) *Fresneña*:

Fresneña herria Beloradotik aski hurbil aurkitzen da, eta, beraz, euskal toponimiaren kokagune nagusitik zerbait gorago. Euskal toponimoen zerrenda Arandio mendizerraren babesgunean baino murrizagoa bertan.

Benaza (lur-saila, erreg. 1018. Villamayor-en toponimo bera). *Ezketa* (lur-saila; erreg. 179; agian, **Ezkieta* baten formula sinkopatua; Burgosko toponimoetan

Ezkijarana, Ezkizaga, Eskiza ildo beretik). *Ulagarte* (lur-saila. **Olagarte*-ren aldakia daiteke lehen elementua *ola*- (sel, cabaña, ferrería...) bada, hegoaldeko tokizenetan bokalearen ixtura ohikoa delarik, -*Martikula, Marmatula, Garrulla, Gumenzula* izenen modura).

e) *Garganchón*:

Garganchón herria ere Burgosen euskal tokizenak ugarien kausitzen diren eskualden kokatzen da, hots, Pradoluengo, Valmala eta Fresnedaren ondoan. Euskal toponimoen desitxuratzeak, gutxi gora-behera, eskualde guztian antzekoak dira; adibidez, *Bendias* > *Mendias* ordez, *Zorza* > *Zorroza* ordez, *Turralde* > *Iturralde* ordez. Beste batzuk *Ritarte*, *Gutia, Rastroluzea, Zarrias (Sarrias)*...

A, B, E, F, G

Abanza (Beste herritako *Abarza*-ren “ramaje” sasi-aldakia, agian; erreg. 2155). *Aluzeas* (lehen elementua gaztelaniar norabidezko preposizioa (*a*) izan bide da, euskal toponimo bati atxikia; bigarrena -*luzea* “largo”). *Andubias* (lur-saila, erreg. 1599). Fresnedan toponimo bera; amaieran -*bea/bia* “parte inferior”). *Araiza* (lur-saila, erreg. 1168). *Arrudela* (lur-saila, erreg. 1678). *Azkurna* (haitza, erreg. 1671; lehen elementua *haitz*- “roca” daiteke; bigarrena, agian, -*gur(e)na* “superior, el más alto”). *Azorke* (lur-saila, erreg. 90). *Bendias* (beherago *Mendias*, ezpainkarien ohiko nahasketaz; lur-saila eta gurutze-tokia, erreg. 183). *Bizkarruka* (lur-saila, erreg. 16; *Zabarruka / Zabaluka* sasi-aldakiak izan daitezke, etimologian *bizkar*- “loma” dagoelarik). *Buzanko* (lur-saila, erreg. 280). *Elesa* (belardia; agian, *eleiza* “iglesia” baten ildokoa, baina ez da ziurra. “La sexta parte de un prado en la Elesa”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 4). *Erukare* (bestetan *Irukare, Ilukare*; lur-saila). *Fuentorrillas* (lur-saila, erreg. 1641; beharbada, hibridoia, lehen elementua *fuelle* eta bigarrena *iturrias / *torrias* daitekeelarik). *Galsomero* (zubia eta belardia, erreg. 442; lehen osagaia *gari/gal*- “trigo” izan daiteke; bigarrena gaztelaniar *somero*). *Garatia* (beste herritan *Garatea* “portillo alto”, *garai*- eta -*ate* elementuetatik. “Un prado de yerba segadora... de siete celemines y medio de cavida poco más ó menos sito en Garatia o prados abiertos comuneros de Santa Cruz, Soto y Garganchon”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 4). *Gazalea(?)* (lur-saila, 281). *Gizamotila* (lur-saila, erreg. 17; beherago *Motila*, soilik.; bere esanahia, ausaz, “muchacho” *giza*- eta -*mutil* osagaietatik). *Gurranbal* (lur-saila, erreg. 765. Kasu batzuetan, -*bal* (*za*)*bal*-en hondarra da). *Gutia* (lur-saila, erreg. 1718; *gutia-k* toponimian “menor” adierazten du, *Regutia, Igutia* kasun modura, eta beste eskualdetako *Olazagutia, Gamarragutia* izenen arabera). *Guzupela* (lur-saila, erreg. 693; bada *Ipella* ere inguruetan).

I, K, L, M, N

Iezkua (lur-saila, erreg. 411, eta Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 14). *Igutia* (lur-saila, erreg. 599; bigarren osagaia -*gutia* “menor”). *Ipella* (lur-saila; Valmalan toponimo bera). *Ilukare* (lur-saila, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 13. “...Sita en do dicen Ilucare, surca por regañon...”. Bere aldakiak *Erukare* eta *Irukare*. Cfr. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 4). *Keiiga* (mendia, erreg. 2158). *Kontraiza* (lur-saila, erreg. 1727). *Laiza* (lur-saila, erre g. 503; lehen kontsonantea gaztelaniar artikuluaeren hondarra daiteke, erroa *aitza* (peña) izaki. *Landabia* (belardia, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 20; lehen osagaia *landa*- “campo”, bigarrena -*bea* (-*bia*,”parte de abajo” *Olandabia, Lozabia* kasuetan bezala. “Un prado de siete celemines y tres cuartillos de cavida situado en Landabia termino de Garganchon, Santa Cruz y Soto, surcante por cierzo de Francisco Heras”. *Lozabia* (lur-saila, Arch. Hist. Prov. Reg. Prop. Leg. 722, 12). *Lozaria* (lur-saila, erreg. 33; *Lozarria* ere bai - erreg. 866-, bigarren ele-

mentua *Zarrias* (*Sarrias*) “lugar espeso”) izan daitekalarik. *Luzea* (lur-saila, “largo”; ildo beretik *Aluzeas* eta *Rastroluzea*). *Maiturri* (lur-saila, *Maziturri*-ren sinkopa; bigarren elementuan *-iturri* “fuente”). *Maziturri* (iturri eta bizkarra). *Mendia* (lur-saila, erreg. 135). *Mendias* (lur-saila, erreg. 671; *mendi* “monte”, pluralgile arrotza atxikia duelarik). *Naskaza Trescaza* ?, lur-saila, erreg. 138). *Oladabias* (baliteke *Landabiarren* ildokoa izatea. “Un prado de cuatro celemines do dicen Oladavias que linda por abrego Fracisco Heras”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 4). *Ordantiga* (belardia. “Un prado de yerba segadora de diez celemiens en Ordantiga termino comunero de santa Cruz, Soto y Garganchonn surca al cierzto Domigno Alarcia”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pro. Leg. 772, 6). *Ordokia* (lur-saila, erreg. 743, “llanura”, *ordo* eta (*t*)*oki* osagaietatik. *Orkidia* honen metatesia, agian. *Orgisalo* (?), (erreg. 183). *Rastroluzea* (lur-saila, erreg. 1472). *Restauluzea* (belardia; bigarren elementua *-luzea* “largo”, bestelako *Rastroluzea*, *Restuluzea*, *Restroluzea*, *Reteluzea* delakoak kontuan izanik). *Riogutia* (erreka, erreg. 1472. Ildo beretik *Regutia*, *Rigutia*, lehen osagaia gatelaniazko *río-* eta bigarrena *-gutia* “menor”. *Riotxikito* beherago). *Ritarte* (erreka eta belardia, erreg. 1240, *río-* eta *tarte* (entre) delakoetatik). *Ritena* (ausaz, bigarren osagaian *-ar(a)na* (valle). *Sarziko* (madura, erreg. 54). *Turralde* ((*I*)*turralde*-ren aldakia, hasierako bokalaren ohiko erorketaz, *Lejoste* < Elejoste, *Txabarri* < Etxabarri izenetan bezala.”...La quinta parte de la heredad de trece celemines y medio encima de Turralde que surca por cierzto...” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 722, 13. Ildo beretik gorago *Maziturri* eta *Maiturri*). *Txikito* (erreka, erreg. 907). *Urban* (lur-saila. “La mitad de una heredad en Urban...” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 15). *Utar* (mendi-lepoa. Bigarren elementua *-ar(a)na* izan daiteke. “La tercera parte de la heredad de ocho celemines y medio en el collado de Utarna y surca por solano...” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 13). *Zabaluka* (lehen osagaia *zabal-* “ancho, extenso”, *-uka* elementua *Bizkarruka*, *Zalduka* delakoetan ematen den bera. “Otra en la subida de Zabaluka de catorce celemines que surca por cierzto camino...” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 14; beste sasi-aldakiak *Zalduka*, erreg. 489, *Zabarruka* erreg. 1172 eta *Zagaluka* erreg. 1610). *Zagaña* (Ildo beretik *Izagaña*. Bigarren elementua, itxuraz, *-gaña* (parte alta, altozano); lur-saila, erreg. 161). *Zagalari* (lur-saila; bada *Zagalaviña* ere; agian, lehen elementuan *zabala-* desitxuratuta. Ez da ziurra). *Zagañas* (lur-saila. “Y la otra en Zagañas de otros tres celemines surcante por cierzto de Antonio Goñi”. Arch. Hist. Prov. Reg. Prop. Leg. 772, 9). *Zarraas* (belardia, *zar-* “viejo”, baldin eta *Zarr(i)as*-en sinkopa ez bada. “Un prado de yerba segadora... de cuatro cargas do dicen Zarraas surcante al abrego de la cofradia de...” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 4). *Zarrias* (*sarria* “espeso, lugar de espesura”, erreg. 856). *Zorza* (lur-saila, erreg. 872. Izan daiteke *Zorrotza* (agudo) baten aldakia, amaierako afrikaria itzalita Bilboko *Zorroza* eta Gasteizko *Mendizorroza* kasuetan bezala; aldaketa fonetiko hori gure erdaldunduetan eman ohi da. Badira *Ginzorza* eta *Kinzorzas* toki-zenak eskualdean).

f) Puras de Villafranca

Puras Ezkerra herriaren ezkerrera ematen da, eta Espinosa del Caminoren hegoaldean; egia esan, euskal toponimia jori gertatzen den tokitik at dago; hala ere, bere euskal tokizenen kopurua Bureba edo Juarros euskualdetakoa baino anitzagoa da. Aipagarri dira, besteen artean, *Ezkarriturrias*, *Valjubi*, *Valuzea* (*Vall(e)*) *luzea* = Valle largo), *Kurzegañas*, *Okendo*, *Okaraña*, *Kurzelaia* (prado de la cruz), *Sarria*.

A, B, E, G

Artikolana (*Artikorana* ?, lur-saila eta aintzira, lehen osagaian *arte-* “entre” baldin eta “encina” ez bada-, bigarrenetan *-arana*, agian; erreg. 494). *Baiza* (ausaz,

euskualdean ezaguna den *Balza* toponimo zaharra). *Bajobi* (*Valjubi*-ren aldaki irekia; lehen osagaia *val* gaztelaniarra izan daiteke *Valondo*, *Valmala*, *Valloca* tokizenetan bezala; erreg. 1. *Valjobi*, erreg. 139. Ikus Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg.589, 8, 1851. urtea). *Baljubi* (lursaila, goikoaren aldakia. “Tres partes de una heredad de cuatro celemines do llaman Baljubi termino de Puras”. Arch. Hist. Prov. Reg. Prov. Leg. 589, 8, 1851. urtea). *Balloka* (*Valloca*, mendia, erreg. 557). *Balza* (lur-saila, erreg. 28 eta 986). *Balzuzea* (*Valuzea* “valle largo”; lur-saila, erreg. 61). *Berkolar* (bigarren osagaia, probableki, *larr(e)* “dehesa, prado”. Cfr, Arch. Hist. Pro. Reg. Pr. Lega.589,8, 1851 urtea). *Bubia* (*Ubia*?, erreg. 613). *Enterga* (lihotokia, erreg. 1075). *Eskarriturrias* (hidronimoa; lehen osagaia *ezkar*- “arce, bigarrena *iturria* “fuente”, gaztelaniar pluragilez osataua; osagai bera *Zarranaturria* toponimoan). *Garreta* (mendi-hegia, erreg. 495; bestalde, *Kareta* formula, bietan *-eta* atzizki ohikoa).

K, M, O, R

Kolorzia (belardia, erreg. 408). *Kruzaraña* (*Kurzegaña*-ren aldakia, *kurze*- (*kurutze*, “cruz”) eta *-gaña* “parte alta, altozano” osagaietatik). *Kurzegañas* (lur-saila; gaztelaniar pluralgilea anitzetan azaltzen da, aspaldidanik eskualde arrotzotzean kokaturiko tokizen bezala; pluralgile bera *Zabaletas*, *Zabalitas*, *Izagañas* izenetan). *Kurzelaia* (bigarren elementua *zelaia*, eskualdean maiz *zalaia* agertzen dela). *Kurzeñas* (*Kurzegañas*, lur-saila, erreg. 349). *Kurzereña* (*Kurzegaña*?, erreg. 439). *Malalan* (?) (lur-saila, erreg. 185). *Modorra* (lur-saila, erreg. 614). *Mulalardo* lur-saila., erreg. 327). *Mugaña* (bigarren osagaia *-gaña* “parte alta”; ikus *Mugarana*/*Mujerana* ere, erreg. 82 eta 623). *Okaraña* (agian, mendealeko *okarana* “ciruelo”, baldin *-arana* “valle” baizik ez bada). *Okendo* (belardia, erreg. 583). *Redunte* (*Ordunte*?, soroa eta lur-saila. “Otra de una fanga en Ordunte, que surca por Regañon la Capellania de Eustaquio Benito, cierzo Feliz Martinez, abrego Ignacio Garrido y demas tierras...”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg.589, 8).

S, U, V, Z

Sajokolareia (?) (lur-saila. “Otra de media fanega en Sajocolareia (?) termino del mismo...”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg.589, 8). *Sarria* (lur-saila, “espeso, espesura”, erreg. 498). *Urdiales* (belardia, erreg. 284). *Valdarrabe* (lur-saila, erreg. 159). *Valdehabiza* (?) (lur-saila, erreg. 291). *Valdeitxabieza* (ausaz, *Valdetxabieta*-ren ildo-koa, San Miguel de Pedroso-n bezala (lur-saila, erreg. 291). *Valdelupe* (San Miguel de Pedroso-n *Valderupe*; lur-saila, erreg. 126. *Valdetxanzera* (?) (lur-saila, erreg. 40). *Valuzea* (ikus gorago *Baluzea*). *Zagaña* (bigarren osagaia, *-gaña* “lugar alto, altozano”, baldin eta *Zagalaviña*-ren sinkopa ez bada; erreg. 507). *Zarranaturria* (bigarren elementua *-(i)turria* “fuente”).

g) Rábanos, Ahedillo, Alarcia, Villamudria:

Beste gehienetan bezala, herrien deitura erdalduna da, baina bertako toponimia tipiak ukazezinezko euskal adierazpenak ditu (Alarcia-ri dagokionez, behintzat, Arlazon ibaiaren ibilbitik aski hurbil aurkitzen delarik). Bestaldeti hurbil Pradoluengo eta Valmala, euskal toponimiazko gune aberatsenetakoak. Rábanos Garganchónetik hegoaldera dago. Azpimarratzekoak, besteen artean, *Zaizola*, *Mazeturre* (*Maziturri*, *Arana*, *Txorrua*, *Kanpuzkiña*, *Azkarro*).

A, B, E, G, H, I

Agas (lur-saila, erreg. 939; behe-rago *Alegas*). *Aiago* (gailurra eta lur-saila, erreg. 1180). *Alaga* (lur-saila, erreg. 664). *Alegas* (*Alaga*?, lur-saila, erreg. 500). *Arana* (auzoa, “valle” erreg. 33). *Arangua* (lur-saila, erreg. 119). *Azas* (lur-saila, erreg. 290).

Azkarro (“arce”, eta bestetan *Ezkarro*, *Ezkarriturrias*, *Eskargaña*, *Eskarna*, *Eskargaña*). *Balza* (eskualdean aurkitzen den aspaldiko toponimoa hots, 1042. urtekoa. San Miguel de Pedroso-n izen bera. Agian, mendebaleko euskaran ezaguna den “beltza” (negro)- ren aldakia, bestelako *barri*, *bago*, *uri* (*uli*), *okaran* eta antzekoen ildotik. *Baskuñana* (*Bascuñana*, herri-toponimo nagusia **Vascuniana* batetik, *Báscones*, *Vasconcelos* gentilizioen antzekoa). *Bastolo* (*Bastola* ?, erreg. 1105). *Burbeda* (lur-saila, erreg. 999). *Erbaneta* (bestetan *Erbineta*; Alarciako lur-saila, erreg. 462). *Espurga* (Rábanosko lur-saila, erreg. 1333). *Etiga* (Villamudriako belardia, erreg. 678). *Etixiga* (*Etiga*?, Villamudriako lur-saila, erreg. 142). *Ezkarro* (goran *Azkarro* aldakia “arce”; Ahedilloko lur-saila, erreg. 3). *Guman* (?) (Ahedilloko lur-saila erreg. 374). *Gurapeta* (lur-saila, erreg. 1151). *Hirrun*?) (Alarciako lur-saila, erreg. 430). *Iuela* (belardia, erreg. 97).

K, L, M, O, R, T, TX, Z

Kanpuzkiña (lur-saila, erreg. 674). *Lapan* (iturria eta lur-saila, erreg. 1663). *Larrako* (Villamudriako belardia, erreg. 1441). *Lusartia* (lehenengoa *lur*- izan daiteke. *Lasartiga* ere bada eskualdean; erreg. 171, 1000). *Mendikillo* (lehen osagaia *mendi* “monte”, *Mendegillo*. *Mendigillo* aldakiak izaki; erreg. 270). *Meneturna* ?) (lur-saila, erreg. 1121). *Mezeturri* (*Maziturri*, bigarren osagaia, *-iturri* “fuente”, *Maziturre*, *Mazeture* (erreg. 544) aldakiak kontuan izanik). *Merguna* (lur-saila, erreg. 1839). *Merkina* (*Mezkina*, lur-saila, erreg. 1914). *Orkiza* (lur-saila, erreg. 508). *Orman* ?) (lur-saila, erreg. 322). *Rako* (agian, *Larrako* baten sinkopa, hasierako silaba gaztelaniar artikulatza hartuta. *Larrako/Larreko* “de la dehesa”; erreg. 121). *Ralda* (Rábanosko lur-saila). *Rejuna* (lur-saila, erreg. 580). *Roiga* (Villamudriako lur-saila, erreg. 30). *Roskioza* (*Orkiza*?, lur-saila). *Rute* (belardia, erreg. 197). *Torraiko* (lur-saila, erreg. 535). *Turkatxos* (lur-saila, erreg. 592). *Txaraña* (?) (agian, bigarren elementua *-arana*?, hobia eta lur-saila, erreg. 583). *Txorua* (*Txorrua*, lur-saila, erreg. (valle). Villamudriako lur-saila, erreg. 606). *Txorteta* (lur-saila, erreg. 361). *Txorma* (*Txorrua* ?, 1863, 945). *Zaga* (lur-saila, erreg. 1009; ausaz, *Zagaña*-ren ildokoa). *Zaizola* (bigarren elementua *-ola* atzizkia; erreg. 2039).

h) San Miguel de Pedroso

Herria Beloradoren hegoaldean aurkitzen da, eta, beraz, Arandio mendizerraren babesgunetik urrun samar. Bertan kokatzen zen monasterioak bere garrantzia ukan zuen; San Miguel de Pedrosoko euskal toponimoak ez dira ugariak, baina Burebakoak baino joriagoak dira, eta *Zarraga*, *Bubarana*, *Antxeta*, *Valdextabieta* (hibridoak) bezain gardenak.

Antxeta (lursaila, erreg. 676). *Assur* (ibarra, 1022 urteko toponimoa. “...Et una vinea que est in valle de Assur...”. Cartulario de San Millán, 102 or., bezer. 91).. *Bajubi* (*Valjobi*, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 665, 3, 1848. urtea). *Baljobi* (lur-saila, lehen osagaia gaztelaniako *val-* (valle). “Una heredad en termino del Priorato que Baljobi de cinco celemines y cuartillo...”(Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 665, 6). *Baljobi* (*Valjobi*, lur-saila, erreg. 225). *Balza* (toponimo zaharra, 1049. urterako aipatua. “Et totam vallem similiter usque ad summitatem campi oteri, et cum toto bustello et cum toto valle de Balza usque ad illum lumbum...”. Cartulario de San Millán, 150 or., bezer. 86). Beste aipua: “Una heredad do dicen Valza de una fanega poco mas ó menos, surca por abrego Feliz vecino de Puras, por solano Pedro Calvo, regañon tiesos, y cierzo valladar”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 665, 3, 1848. Urtea. Bere jatorria euskarazko *baltz* “negro, oscuro”, mendebaleko euskalkian, izan daiteke, baina ez gara beste iturrietara ixten). *Barga* (lur-saila, erreg. 2409. *Barga* hitza ezaguna da Ergoienan Naf.) eta bestetan toki *menditsu* eta *garai* bezala). *Bargadilla* (lur-

-saila.”Otra en Bargadilla de cinco celemines poco mas ó menos que surca por cierzo D., Miguel de Mateo, abrego el Hospital de Belorado”. Arch. Hist. Prov. Reg.- Pr. Leg. 665, 7, 1851. urtea). *Berlariga* (lur-saila, erreg. 68). *Bubarana* (lur-saila, -arana (valle) elementua, *Mujarana*, *Txobaharan* toponimoetan bezala). *Mujarana* (lur-saila, agian, *Bubarana*-ren ildokoa). *Sabutxo* (lur-saila, 1022. urtea; agian, gaztelaniako *Sabuco*. 1022 urtean bada bere lekukotza, *Chovaharan* eta *Assur* tokizinekin batera. “...Et una vinea que est in valle de Assur, ... et miserunt media vinea en Sabucho, et altera vineam que est in Chovaharan, quam misist Acha vita eta Nunno Valza de Seroiana...”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 102. or., bezer. 91). *Txobaharan* (lur-saila, 1022 urtekoa. Testua ikusi aurreko toponimoan). *Valderupe* (lur-saila. “Una heredad de una fanega poco mas ó menos en termino del Priorato de San Miguel que llaman Valderupe, surca por cierzo la cofradia de San Esteban...”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 665, 6). *Valdextabieta* (lursaila; bigarren osagaia, antza, -(e)txabieta, lehen bokalaren ohiko erorketaz. “Una heredad de media fanega en termino del Priorato do dicen Valdechabieta que surca por cierzo Simon Garrido”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 665, 3, 1848. urtea). *Villaumbidia* (?) (lur-saila, erreg. 1916). *Zagalaviña* (eskualdeko beste herrietan lur-sail bera; bigarren elementua gaztelaniatzko -viña; lehenegoa, aldiz, izan daiteke *zabala*-ren aldaki desitxuratua). *Zarga* (lur-saila, probableki, *Zarr(a)ga*-ren sinkopa, atzetonikoaren erorketaz gaztelaniar azentuaren eraginez). *Zarraga* (baratzea, erreg. 5330; *zar-* (viejo) eta -aga atzizkitik).

i) Santa Cruz del Valle Urbión, Soto del Valle

Bi herriok euskal toponimia oso sarri den eskualdean ematen dira, hau da, Arandio (La Demanda) mendi-zerraren gunean, Pradoluengo edo Fresnedako euskal toponimoen intentsitate-esparruan. Besteetan legez, euskara eskualdetik orain sei-hun bat urte mintzaira bizi bezala desagartzeak ondorioz euskal tokizenen adulterazio, desegite eta sinkopazio-prozedurak azkartu zituen. Hurrengo fenomenoak atzeman daitezke toponimo horietan: a) lehen bokalaren erorketa (*Txarreturre* (*E)txarriturri), *Turralde* (I)turralde), *Igutia* (Riogutia, Regutia), *Zagañas* (I)zagañas, *Zaga* (I)zaga (?). b) Bokaleen erorketa azentuaren eraginez (*Utarna* (Utarana). c) *Ea* talde bokalikoaren ixtura (*Basardia* (Basarte), *Landabea(s)* (Landabias). d) Artikulu erromanikoaren sasi-intepretazioa (*La Remendia* (Larremendia), *La Renguna* (Larreguna). e) Bestelako adulterazio eta sinkopak (*Ilukare* (Erukare, Errukare), *Erbineta* (Arbineta, Ermineta), *Rioalde* (Ritaldea), *Rioartea* (Ritartea, Retartea), *Riogutia* (Regutia, Igutia), *Zorza* (Zorrotza?). Beste toponimo askok ez du jasan adulterazio nagusirik, elementuak aski garden iraun dutelarik *Luzea* (largo), *Zelaya* /*Zalaia* (lano, campo), *Iturri* (fuente), *koba* (cueva), -*arana* (valle), *zarra* (viejo), *gorria* (rojo, pelado) bezala.

A, B

Abarza (lur-saila, erreg. 2155; bere osagaiak, agian, *abar-* (rama) eta -*za* ugari-tasunezko atzizkia. Ildo beretik Euskal Herrian *Abartzegi*, *Abartzuza*). *Altuzarra* (mendia eta erreka, *altu-* (alto) eta -*zarra* (viejo) osagaietatik). *Aluzea* (belardia, erreg. 1128. Lehen bokala izan daiteke gaztelaniar preposizioa; ido beretik *Aluzeas* (mendia, erreg. 2155). *Arandona* (lur-saila). *Arbineta* (beherago *Erbineta*, erreg. 132; izan daiteke “lugar de liebres”, beharbada, *Erbiti* (Naf.) toponimoa bezala; *Ermineta* honen aldakia, antza). *Armaula* (ibar tipia; -*ula* amaiera -*ola* atzizkia formula itxiaz eskualde betse *Bedarkula*, *Garrulla*, *Martikula*, *Gumenzula* bezala). *Arralde* (-*alde* “lado, zona” osagaia *Iturralde*, *Turralde* tokizenetan, besteen artean). *Artes* (lur-saila, erreg. 106 ; “entremedio”, pluragilez erromanikoaz. Osagai bera *Ulagarte*,

Txaurte kasuetan. Dena den, izen osoa beherago *Ilartes*. Beharbada **Lartes* “entre dehesas” *La Rain* (era) - Arabako toponimoetan- antzera hasierako silaba artikulatu erromanikotzat oker hartuta) *Azekoturre* (lur-saila, erreg. 1130; bigarren osagaia *-(i)turre* (fuente). *Barkaskuna* ?) (lur-saila, erreg. 1164). *Barraute* (lur-saila. “...En termino que llaman Barraute da fruto...” Arch. Diput. Leg. 1849, 270, 1752. urtea). *Barrukales* ?) (lur-saila). *Basardia* (lur-saila, *baso-* (bosque) eta *-artia* (entre) elementuetatik, baldin amaierakoa *-di* tokizko atzizkia ez bada). *Basinttes* ?) (Soto del Valleko lur-saila. “...Que llaman Basinttes da fruto a segundo año. Confronta por zierzo con tierra de Herederos de Mathias Alonso”. Arch. Diput. Leg. 1977, 220, 1752. urtea). *Besteklinea*(?) (lur-saila. “... Dos celemines de un Prado mayor cabida en Besteklinea, termino comunero surca regañon otro prado de los compradores”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 8). *Birgona* (Lur-saila). *Bizkaruka* (*Bizkarruka*, lur-saila; lehen osagaia *bizkar-* “loma” *-uka* atzizkiaz. Ildo beretik Burgosko toponimoetan *Bizkarra*, *Bizkarraga*). *Bizkornuda* (“...Que llaman Bizkornuda (?) da fruto cada año” Arch. Diput. Leg. 1849, 265, 1752. urtea). *Buzanko* ?) (lur-saila, erreg. 193).

E, F, G, H

Ekizaga (probableki, *Ezkizaga*, “lugar tilos ?”). Beherago *Ezkiza*, *Eskizalaia*. “Un prado de tres celemines poco mas ó menos en Equizaga termino comunero de Santa Cruz, Soto y Garganchon que surca por solano del comprador. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 11). *Erbineta* (*Ermineta* aldakia ere bada; erreg. 240. *Erbinetta* grafiaz, berriz: “...De dos celemines y media de sembradura de tercera calidad donde llaman Erbinetta”. Arch. Diput. Leg. 1977, 157, 1752. urtea). *Errukare* (*Erukare*, *Ilukare* aldakiak ere bai. Lur-saila eta madura.”Otra heredad en Errucare sembradura de tres celemines poco mas ó menos, surca por regañon la Paul llamada Errucare cirzo y abrego Riberas”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13. Orobat, hurrengo: “...Sembradura de tercera calidad en termino que llaman Errucare”. Arch. Diput. Leg. 1848, 9, 1752. urtea). *Eskizaia* (*Ezkizalaia*?, belardia, erreg. 211). *Eskizalaia* (lur-saila, erreg. 995; *ezki-* “tilo” batzuetan), *-zalaia* (prado, campo). *Espurzia* (lur-saila, erreg. 407. “Sembradura de tercera calidad en termino que llaman Espurzia...”. Arch. Diput. Leg. 1849, 21, 1752 urtea). *Ezkiza* (agian, *Ezkizaga*-ren sinkopa; belardia, erreg. 1877). *Garatia* (*Garatea*, “portillo de monte” *garai-* eta *-ate* elementuetatik; Santa Olalla-n tokizen bera; erreg. 470. “Otra heredad vajo el camino que se va á Garatia”. Arch. Hist. Prov. reg. Pr. Leg. 637, 14). *Gitagalena* (?), (lur-saila, erreg. 1061; probableki, *Gitagorena*-ren aldakia, bigarren osagaien *-gorena* (el más alto, superior). “...Sembradura de tercera calidad, en termino que llaman Guitagorena”. Arch. Diput. Leg. 1849, 12, 1752. urtea). *Gizamotila* (*giza-* (humano) eta *-motilla* (muchacho) osagaietatik; toki-izena, agian, ez-izen bezala hartu behar da, lur-saila, erreg. 435). *Guarza* (larraina, erreg. 1582; bide beretik *Guarza Hobias*, lur-saila, erreg. 144). *Gustaia*(?) (lur-saila; amaieran *-zalaia* baten sinkopa egon daiteke). *Gurupea* ((Soto del Valle-ko soroa). “Otra tierra de secano de dos celemines de sembradura, y tercera calidad, en Gurupea”. Arch. Diput. Leg. 1977, 2, 1752. urtea). *Gutia* (“menor”, *Regutia*, *Rigutia*, *Marangutia* delakoetako bera). *Guzpizarra* ?) (lur-saila). *Ilobias* (kanposantu zaharra, erreg. 1984; tokizenaren kokapena kontuan izanik, *agian*, *hilobia* “sepultura” delakotik; beherago *Ilobias* 1752. urtean). *Horubias* (lur-saila, erreg. 822).

I, J, K, L, M

Igutia (lur-saila, agian, *Rigutia*-ren aldaki laburra, “río menor” esanahiaz). *Ilartes* (lurtsaila. Gorago *Artes*. **Lartes* balitz *larr(e)-tik*. *Ilar-*, bestalde, “brezo”).

Ilobias (Soto del Valleko lur-saila. Gorago *Hilobias*. “Otra heredad en Ilobias sembradua de dos celemines poco mas ó menos que surca por cierzo de Pascual Garcia”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13). *Ilukare* (aldakiak *Erukare*, *Errukare*.”...De segunda calidad donde llaman Ilucare da fruto con descanso de un año” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 156). *Ilukarre* (erreg. 52). *Ikapika* (lur-saila). *Iorza* (Soto del Valleko lur-saila. Agian, *Zorza /Zorr(o)za*-ren aldakia; beherago *Zorza*. “...Y segunda calidad, en do llaman Iorza, da fruto cada año, confronta por Cierzo con prado de Juan Garcia”. Arch. Diput. Leg.1977, 4, 1752. urtea). *Ipella* (lur-saila, erreg. 124. “Otra de igual sembradura en Ipella surca al solano Pedro Camara”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg.637, 13. Orobat, hurrengo lekukotza: “...De medio celemin y tercera calidad, en Ipella”. Arch. Diput. Leg. 1977, 18, 1752. urtea). *Iturburu* (“manantial, *iturr(i)-* eta *-buru* elementuetatik; Araban -gaztelaniaren ukitian, maiz, *Itorboro* eta *Torboro* formulak bokaleen irekiera berantaz. Pradoluengon *Turbero* (Iturbero) eta *Turroz*as (Iturroz)as). *Jaizka* (lur-saila). *Kabolasa* (belardia, erreg. 161). *Kaprea* (Soroa. “Otra tierra de secano, en do llaman Caprea, de celemin y medio de sembradura”. Arch. Diput. Leg. 1849, 431, 1752. urtea). *Ketiga* (mendia, erreg. 2158). *Kobatxo* (lur-saila, erreg. 447). *Korko* (Soto del Valleko soroa. “Sembradura de tercera calidad en termino que llaman el Corco da fruto con descanso de tres años”. Arch. Diput. Leg. 1977, 3, 1752. urtea). *La Luzea* (*luze* “largo”. Orobat *Luzea*, belardia, erreg. 518). *Landabias* (*landa-* “campo” eta *-bea* “bajo” osagaietatik, agian. Ildo beretik *Olandabias*. “Un prado de diez cargas de yerba en do dicen Landabias, surcante al abrego herederos de Andres Garrido”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13). *Lantern*a (hobia). *Lartes* (lur-saila, erreg. 19. **Larr(a)rt*es baten sinkopa, ausaz, pluralgile erromanikoa atxikia duelarik. Gorago *Artes*). *Lozaria* (lur-saila, erreg. 821. Orobat, *Lozarria* formula -erreg. 47-, bigarren osagaia *-sarr*ia (espeso) daitekelarik. Beherago *Zarrias*, erreg. 50). *Luzea* (“largo”, belardia, erreg. 518). *Maionda* (lur-saila, ausaz, - *ondo(a)*, *Maiond(o)a Iberondo*, *Ironda/Trond(o)a* kasuak bezala). *Mendia* (“monte”, erreg. 1119. Bestetan *Mendias* eta *Bendias*, azken hau ezpainkarien ohiko trukaketaz). *Mendias* (goikoa, gaztelaniar pluralgilez). “Sembradura de segunda calidad en termino que llaman de Mendias”. Arch. Diput. Leg.1849, 27, 1752. urtea). *Mozalzar*o (lur-saila). *Motila* (lur-saila, erreg. 2100; gorago *Gizamotila*). *Mozalzaral?*) (agian, *Mosalzar*o; lur-saila, erreg. 1917). *Muñeza* (padura eta lur-saila, erreg. 154).

O, P, R, S

Olanbarras(?) (lur-saila, agian, erreg. 1398). *Onaldia* (lur-saila, bigarren osagaia *-aldea* daiteke). *Orbella* (artegia). *Ordanitiga* (ildo berekoa, itxuraz, *Ordantiga*; erreg. 489. “...Y segunda calidad, en do llaman Ordanitiga, da fruto cada año”. Arch. Diput. Leg. 1849, 73 eccl., 1752. urtea). *Ordokia* (lur-saila, erreg. 1192, “llano” *ordo*-eta *-(t)oki* osagaietatik) *Oreka* (lur-saila; laburduraz *Orka*. Agian, **Ordeka* “llan” baten aldakia. “...En termino que llaman La Oreca da fruto”. Arch. Diput. Leg.1977, 16, 1752. urtea). *Orkilanda* (muino eta erreka; **Ordokilanda* baten sinkopa), behar-bada). *Otarna* (*Utarna / Utarana*-ren aldaki beranta, -amaieran *-arna/-ar(a)na* “valle”). *Pradobineta* (lur-saila, erreg. 1542). *Regutia* (erreka eta lur-saila, erreg. 2138. Nahiz, *erri-* “ campo, tierra” hitzaren sinkopa *re/ri* izan daitezkeen, Errigoitia > *Rigoitia* kasuan bezala, lehen osagaian gaztelaniazko *río-* / *re-* (*Retuerto* = Río tuerto o torcido, euskaraz *Laspiur*) ematen dela uste dugu. *Rigutia* kasuan zuzenago *río*-osagaia. *Regutia*, beraz, “río menor” edo *arroyo* litzateke. Bada *Rio Txikito* ere. Antzeko bidetik *Ritartera* (**Riotartera*, *Ritaldea*). *Rekonzalaia* (lur-saila, erreg. 961; bigarren osagaia *-zalaia* (llano, prado) *Martinzalaia*, *Kruzelaia* kasuetan bezala;

hemen bigarren elementua asimilazio bokaliko goranzkoaz). *Remendia* (lur-saila; probableki, **Larremendia*, haseirako silaba artikulutzat oker hartuta. Ez dugu uste, bada, hasierako *re-* delakoa *erri-* “tierra, campo” denik. Bestalde, *Regutia*-ren erlazioan “río/ re-” bezala ere intepreta daiteke, baina hemen ez da hain itxurazkoa. Beraz, probableago “monte de pastizales” esanahia). *Renguna* (lur-saila, erreg. 272; bigarren osagaia izan -*gune* (espacio, lugar) ala -*gurena* “superior, el más alto” *Valdegurena*, *Gitagorena* kasuetan bezala). *Restroluzea* (belardia, 549). *Reteluzea* (lur-saila, erreg. 303; ildo beretik *Retaluzea*, erreg. 661, *Restuluzea* / *Resteluzea* ?), -*luze* “largo” osagaiaz; beherago *Zestruluzea*, *Zertuluzea*). *Ritaldea* (lur-saila). *Ritartea* (lur-saila; lehen elementua *re-* (río), *erri-* “tierra, campo” alhora utzita. Gaztelaniar *Retuerto* hidronimoan osagai bera). *Ritena* (lur-saila; bere aldakia *Rittana*. “...Que llaman Rittana..., confronta con tierras de Hermenegildo Camara”. Arch. Diput. Leg. 1849, 27, 1752. urtea. **Ritarana* baten sinkopa izan daiteke, “valle” izaki bigarren osagaia; bada *Ritena* aldakia orobat, erreg. 108. “Otra de la misma cavida en el Salegar de la Ritena surcante por cierzo y solano...”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13). *Sabaruga* (*Zabarruka*?, haitzak). *Sabarruka* (lur-saila, -uka atzizkia *Bizkarruka*). *Sabarruza* (*Zabarruka*?, lur-saila). *Solanta* (lur-saila).

T, TX, U, V, Z

Turaldea (*Turaldea*, lur-saila eta iturria, erreg. 620, 76; (*i*)*tur-* “fuente” eta -*aldea* “lado, paraje” osagaietatik. Santa Cruz del Valle-ko lur-tsaila. “Otra de dos celemines y medio en Turaldea, surca por regañon Beneficios y solano Ignacio Alarcia”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13). *Turrida* (?) (belardia, erreg. 364). *Txarreturre* (lur-saila, erreg. 141; bigarren osagaia -*iturri* “fuente”, lehenengoa, ausaz, (*E*)*txaurre*). *Txikito* (erreka eta belardia, erreg. 533). *Txorron* (*Txorran*?, lur-saila, erreg. 977). *Ulama* (?) (lur-saila, erreg. 556). *Utardia* (?) (lur-saila). *Uzkiza* (lur-saila; beharbada, (*Eg*)*uzkiza* “lugar de solano” baten sinkopa, lehen bokalaren erorketaz (*I*)*turaldea*, (*E*)*leja* kasuetan bezala. *Urkiza* herria ere bada *urki*-ren ildotik askoz *Utarana* (lur-saila, -bigarren osagaia -*arana* “valle”. Aldakiak *Utarna* erreg. 39, 1225, eta *Utarena*.”Termino que llaman Utarna da fruto a segundo año”. Arch. Diput. Leg. 1849, 23, 1752. urtea). *Utardia* (?) (lur-saila). *Vallegorria* (toki-izen hibridoa, bigarren osagaia -*gorri* “rojo, seco” izaki). *Zabaluka* (*Zabarruka*?, lur-saila, erreg. 21, Arch. diput. Leg. 1849, 25, 1752. urtea). Lehen osagaia *zabal-*, (*agian*). *Zabaluzea* (lur-saila). *Zaga* (*Za*(*rra*)*ga* ala (*I*)*zagañas*/ *Zagaña* -ren ildokoa; erreg. 472). *Zagañas* (soroa. “Otra heredad en Zagaña sembradura de celemin y medio ó dos, surca por regañon de Pedro Arcendillo”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13. Hurrengoa ere bai: “...Y de segunda calidad, en do llaman Zagaña, da fruto a segundo año”. Arch. Diput. Leg. 1977, 9, 1752. urtea). *Zalaia* (“llano, prado” *zelaia*-ren aldakia; bide berdinetik *Rekonzalaia*, *Eskizalaia*, *Ziskezalaia* (?). “Y segunda calidad, en do llaman... zalaia, da fruto a segundo año”. Arch. Diput. Leg. 1977, 3, 1752. urtea). *Zarrias* (*sarria* “espeso, espesura”, belardia, erreg. 50). *Zarzea* (lur-saila). *Zarzia* (belardia, erreg. 94). *Zarzia* eta *Ordantiga* (lur-saila, erreg. 2016). *Zerrulabe* (lur-saila). *Zertuluzea* (lur-saila) “...De tres celemines de sembradura, y primera calidad en do llaman Zertuluzea”. Arch. Diput. Leg. 1977, 12, 1752. urtea). *Zestruluzea* (*Zertuluzea*?, soroa. “...De dos celemines de sembradura de segunda calidad donde llaman Zestruluzea produce cada año”. Arch. diput. Leg. 1849, 276, 1752. urtea. Gorago *Restuluzea*, *Restroluze* eta *Reteluzea*). *Zillas* (lur-saila, *cella*/ *ciella* erromaniakoaren erlazioan. Euskararen esparruan *zil* “omblijo”, “cogollo”, “eje” eta abar. Goiko etimologia probableena.”...Tres celemines sembradura de tercera calidad en

termino que llamar Zillar (Zillas?), da fruto...”. Arch. Diput. Leg. 1849, 24, 1752. urtea. Ildo beretik *Zukuzila*, *Zorazilas*). *Ziskezalaia* ?) (soroa. “Sembradura, y tercera calidad en do llaman Cisquezalaia”. Arch. Diput. Leg. 1977, 3, 1752. urtea.). *Zorza* (belardia, erreg. 117; probableki, *zorr(o)za* “agudo” hitzaren ildotik, atzetonikoaren erorketaz. Burgosko toponimoetan, orobat, *Kinzorzas*, *Ginzorzas*).

j) *Tosantos*:

Tosantos herria Espinosa del Camino eta Belorado artean lekutzen da, eta, beraz euskal toponimia sarri ematen den gunetatik urrun. Aipatzekoak *Azkarro*, *Aranas*, *Berkolar* tokizenak.

Aranas (lur-saila, erreg. 1134; *aran* “valle”. Osagai beraz toponimo anitz Burgosko partean *-arana/arna* formulapean (*Zularna*, *Ezkurna*, *Urtxarana*, *Eskijarana*, *Bitarana*, *Araluzia*, *Arangua*, eta abar). Cfr. L.M. Mujika, “El euskara en la toponimia de Burgos”, *Iker* 6, Euskaltzaindia, 327-330 or.). *Arancones* (lur-saila, erreg. 1947). *Azkarros* (lur-saila, erreg. 264; *ezkar* / *azkar* “arce campestre”. *Ezkarros* aldakia bada). *Barga* (lur-saila, erreg. 1280). *Berkolar* (lur-saila, erreg. 622; igarren osaigaia *larr(e)* / *lar* “dehesa, pastizal” daiteke. *Brekolar* aurrekoaren metatesia; erreg. 168). *Karrerai* (?) (lur-saila, erreg. 926). *Matxorra* (lur-saila, erreg. 1726). *Nokakora* (lur-saila, erreg. 769; *Okakora*, erreg. 756, bestalde). *Ortiz* (muino eta lur-saila, erreg. 156; lat. *fortis*-en ildo patronimikoa duena). *Roazas* (*Ruaza*, lur-saila, erreg. 329). *Zurrikueta* (?) (lur-saila, erreg. 1180; *-eta* atzizkiak Burgosko euskal toponimoetan *Arizeta*, *Maldeta*, *Ezpeleta*, *Olleta*, *Zabaletas*, *Ezketa*, *Txabieta*... *Baganeda*-k, berriz, herskari ozenaz formula erromaneztatua luke. Cfr. L. M. Mujika, “El euskara en la toponimia de Burgos”, art. c. 321-322).

k) *Valmala*:

Valmala Arandio mendi-zerraren adarretan aurkitzen da, hots, euskal toponimoak ugarien diren eskualdetik hurbil. Bertan tokizen garden asko: *Zabaletas*, *Zaballa*, *Arankiza*, *Zarria* (*Sarria*), *Bitarana*, *Sorabe*, *Zamaka*... Tokizenak herriekin mugakide direnean errepikatzen dira, nagusiki. Nabarmentzekoa toki-izen batzuen palatalizazioa: *Zaballa*, *Garrulla*, *Gomenzulla*, *Artolla*, *Olleta* (*-olla/-ulla*-atzizkiaren kasuan); hegoaldeko eskualde erromanizatueta egoniko euskal toki-izenen ñrabardura fonetikoak islatzen du.

A, B, E, G, H

Abina (agian *Arnia*?, erreka. “Y una heredad de tres celemines en el Rio de Avina (?) linda al solano de los compradores”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 7). *Ainela* (**A Inela* izan daiteke, preposizio eromanikoa duelarik muturrean; erreg. 408). *Aitarte* (erreka). *Aizpuru* (erreka eta lur-saila, *aitz-* “roca” eta *-buru* “cabeza, punta” osagaietatik). *Alluzarra* (bigarren elementua *-zarra* “viejo”. Santa Cruz-en bada *Altuzarra* toponimoa. Osagai beraz Burgosko toponimoetan: *Zarraga*, *Zarrabadia*, *Turruzarra*, *Altuzarra*, *Guzpizarra*). *Andalaña* (lur-saila, erreg. 160). *Andurla* (agian, **Andorla* batetik, *-ola* atzizkiaren formula itxiaz). *Armia* (lur-saila, erreg. 404. Merino Urrutiak *Haramia* zaharrago baten lekukotza, op. c., 92 or.). *Arankiza* (*Arangiza*?, lur-saila eta belardia, erreg. 212. “Una heredad de tres celemines poco mas ó menos en Aranquiza, surcante por cierzo de Don Policarpo Alarcia, al regañon de Francisco Robredo”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 9, XIX mendea. XVIII mendean hurrengo lekukoa: “Otro prado de... sembradura, de tercera calidad, en do llaman Aranquiza, regadio con la misma agua que el antezedente”. Arch. Diput. Leg. 2162, 75, 1752. urtea. *-za* atzizkiak hurrengo toponimoak Burgosen: *Giraldaza*, *Eguzuza*, *Abarza*, *Arduisa*, *Artaza*, *Orokiza*, *Usarza*, *Urkiza* (herria). *Artolla* (lur-

-saila; *Artola* “cabaña de ovejas” baten formula bustia). *Barangones* (?) (lur-saila, erreg. 81). *Barraute* (lur-saila, erreg. 806). *Bitarana* (haitza eta lur-saila; erreg. 684; honen aldakia *Bidarana*, erreg. 553). *Bidutxo* (lur-saila, erreg. 19). *Bitarkuna* (haitza eta lur-saila, erreg. 984; bigarren elementua *-gune* izan daiteke). *Ekueta* (*Zelekua*, *Zelegueta*?, lur-saila, erreg. 1120). *Eraña* (*Erreña*?, lur-saila, erreg. 605). *Erreña* (lur-saila, erreg. 161; beherago *Herreña*). *Ezpea* (*Zizpea*?, lur-saila, erreg. 231). *Garrulla* (lur-saila). *Gindabal* (lur-saila, erreg. 1986; bigarren elementua, agian, *-zabal*). *Girridal* (?) (lur-saila. “Otra en el Gurridal de tres celemines”. Arch. Hist. Prov. Reg. Prov. Leg. 676, 9). *Herreña* (lur-saila, erreg. 381). *Hizondo* (*Irondo*?, lur-saila).

I, L, M, N, O

Inela (lursaila, erreg. 1133). *Inja* (?) (lur-saila, erreg. 1371). *Ipella* (lur-saila. “...En do llaman Ipella, da fruto a segundo año, confronta por Cierzo con tierras de Manuel Camara”. Arch. Diput. Leg. 2162, 131, 1752. urtea. “Y otra de dos celemines y medio en Ipella, linda al Regañon y Solano...”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 12). *Lapaiga* (*Lopaiga* eta *Luperiga* beherago. Bada *La Opaiga*, lehen kontsonantea artikulatu erromanikotzat hartuta...). “Otra tierra de secano de dos zelemines de sembradura de tercera calidad, en do llaman Lapaiga, da fruto a segundo año”. Arch. Diput. Leg. 2162, 24, 1752. urtea). *Lasartin* (lur-saila). *Latrotxe* (belardia, erreg. 9). *Lopaiga* (lur-saila, erreg. 298). *La Zorza* (*Zorza*, sakana, erreg. 376). *Lozabe* (lur-saila; *Ozabe* / *Uzabe* lehen kontsonanterik gabe. “Otra en Lozabe de nuebe celemines surca por regañon Narciso Peña”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 7). *Lozoabe* (*Lozabe* ?), lur-saila, erreg. 126). *Luperiga* (*Lopaiga*?, lur-saila, erreg. 53). *Magillo* (iturri eta lur-saila, erreg. 1304). *Mandrabula* (lur-saila; amaieran *-ola* / *ula* atzizkia, antza. Bere aldakia *Mandragula*, erreg. 89. “Y una heredad de media fanega de sembradura en do llaman la Mandrabula, jurisdicción del mismo Balmala que surca por abrego...”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 19). *Markina* (*Mezkina*?, lur-saila, erreg. 585). *Mendegillo* (*Mendikillo*, probableki, *mendi*-ren ildokoa, amaieran gaztelaniar txikidurazko atzizkia duela; erreg. 1441. Batzuetan ere *mende-* *-mendi* ordez, gaztelaniar bokalismoaren eraginez-). *Montikillo* (erreg. 158, *Mendikillo*-ren formula erromaneztatua). *Mendigillo* (soroa). “Una en Mendiguillo de media fanga de sembradura surca por abrego Tomas Camara”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 7. Ildo beretik *Mentikillo* (erreg. 92). *Merikinu* ?) (erreka eta lur-saila, erreg. 984). *Meskina* (“Otra en Mesquina de un celemine...”). Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 9). *Mezeturri* (lur-saila, bigarren elementua *-iturri*). *Mosalsuro* (*Mosalzaro*?, lur-saila). *Muzkina* (*Mezkina*?, lur-saila, erreg. 186). *Nella* (*Neila* ?, lur-saila, 634). *Nojog* ?) (belardia, erreg. 38). *Onso* (lur-saila, erreg. 665). *Opaiga* (*Lopaiga*, lur-saila, erreg. 145). *Ozabe* (*Lozabe*, lur-saila, erreg. 365; *Ozube* aldakia, erreg. 811).

R, S, T, TX

Remendiko (toponimoa baliteke **Larremendiko* baten sinkopa izatea, formula erromantzeatuak *La Rrea*, *La Rain*, *La Rabidea* (*Larrabidea*?) modukoak izaki, lehen silaba artikulatu erromanikotzat (*la*) hartuta. Ez ahanzi Burgosko toponimotan *Larreguna*, *La Rabidea*, *Larran*, *Lartes* delakoak. Hemen ez zaigu probablea iruditze (*e*)rri- “tierra, campo”-ren errotik abiatzea). *Rodrigaña* (lur-saila, erreg. 1490). “*San José*” eta *Txarriturri* (meatoki baten izena, bigarrena euskalduna delarik, *etxa*-*txarri*?) eta *-iturri* osagaietatik. Beherago *Txarriturre* eta *Txarreturre*). *Sarobe* (lur-saila, “majada, redil” esanahiaz...” En do llaman Sarove da fruto al segundo año, confronta por Cierzo con terrenos del Concejo”. Arch. Diput. Leg. 2162, 30, 1752. urtea). *Sarriko* (sakana, erreg. 265; *sarri*- “espeso, espesura” *-ko* atzizkia. Bestetan *Zarrias*, txistukariaren trukaketaz). *Txantio* ?) (belardia). *Txarreturre* (*Txarriturri*,

belardia, erreg. 906; bi azken bokaleen irekiera (i > e) eman da, gaztelaniak euskal fonetikari erantsitako irekiera (*mendi* > *mende*, *Mendegillo* kasuan bezala). Araban *beiti* > *betxi* > *betxe* eta *bide* > *bede* prozedura fonetikoak atzematen dira, noiz edo noiz, erdalduntze zaharreko eskualdetan. Lehen osagaia *etxa*- “casa”, baina *-txarri* “cerdo” ez da arbuaitzekoa. *Txarriturre* aldakia, erreg. 295). *Txarte* (*Etxaurte?*, belardia, erreg. 908). *Txaurte etxeaurre*- “delante de la casa” eta *-arte* osagaietatik, antza. “Un prado para cogida de cauto cargas de yerba situado do dicen Chauarte termino de la misma surcante al solano del comprador”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 7). *Txikito* (baratzea, 1194; orobat, *Txikitos* (lur-saila, erreg. 305). *Txorran* (lur-saila, erreg. 173). *Txuarte* (*E*)*txaurte*-ren metatesia, erreg. 215, 426).

U, V, Z

Upaiga (*Lopaiga*, lur-saila, erreg. 1119). *Vallegorria* (toponimo hibridoia, “valle rojo, pelado” esanahiaz). *Zaballa* (*Zabala*-ren aldakia bustiduraz, hegoaldeko toponimoetan ohikoa denez. “Et inde ascendendo ad illam viam que vadit de Belforato ad Espinosam, ubi iungit se cum supdicta (*sic*) via super S. Johanem de Zavalla”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 46 or., bezer. or. 97). *Zallaza* (**Zaballaza*-ren sinkopa, agian). *Zaballazu* 1190. Urteko tokizena. “Et una terra in padule S. Clementis, et alias duas terras in Zavallazu super illam sernam de Sancio Didaz...”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 280 or., bezer. r.98). *Zabalta* (**Zabaleta*-ren sinkopa, bigarren silaban azentu bizkorrek bokalaren erorketa sortu bide duelarik; lur-saila, erreg. 558). *Zamaka* (soroa, Arch. Diput. Leg. 2162, 82, 1752. urtea, erreg. 97, -975). *Zarramo* (lur-saila, erreg. 58). *Zarria* (*Sarria*, “espeso”). *Zarzias* (lur-saila). *Zarruko* (-*uko* / *uka* atzizkia *Bizkarruka* kasuan bezala. Arch. Diput. Leg. 2162, 26, 1752. urtea). *Zelekua* (lur-saila). *Zizpea* (“...De sembradura, de tercera calidad en do llaman Cizpea”. Arch. Diput. Leg. 2162, 55, 1752. urtea). *Zorzas* (haitzak eta lur-sailak, erreg. 207; agian, **zorr(o)tza* “agudo” batetik, atzetonikoaren erorketa islatuz; eskualdeko beste herritan toponimo bera). *Zumaka* (agian, *Zamaka*, lur-saila, erreg. 641; bada, dena den, *zumake* landarea, jatorriz, arabiarra bide dena).

2. *Arlanzon ibaiaren ibilbide garai eta erdiko euskal toponimoak*

Nabarmen egiten da Arlanzon ibaiaren ibildea, Pineda de la Sierra eta Río Cabado aldean ematen dena; sarritasun apalekoa da bertako toponimia, herriak lautadan ere sartzen direlako, eta eskualde lauak mendialdekoak baino babes urriago eskaintzen dio onomastika zaharrari. Beraz, Herramel, Villarobe, Urkiza, Urrez eta Ibeas de Juarros -Pradoluengo edo Fresneda de la Sierra baino- toki zelaiagoan kokatzen dira, eta euskal toponimia murriztagoa dute. *Arlanzón* eta *Arlanza* hidronimoen etimologian, agian, pentsa daiteke lehen osagarrian *arr(i)*- “piedra” batean, bigarren elementua ez-ezaguna zaigularik, -amaiera *-za* atzizkia izaki. Arlanzóngo ibilbidea aspaldian Santiago-bidea izan zen, eta bertan kanpoko jendeen eraginez euskal toponimo zaharrak desagertzea sinesgarri da. Berdin esan daiteke Burebako eskualdeari dagokionez. Sail honetako tokizen anitz Merino Urrutiaren lanetik hartu dugu.

a) *Arlanzón*:

Haraduzela (San Miguel de Pedrosoko monasterioko idazkietan, 1069 urtean). *Otaza* (*ote*-ren ildotik, beharbada; 1752 urteko tokizena. Atzizki beraz Burgosko toponimoetan *Abarza*, *Iraza*, *Usarza*, *Orokozia*. Ikus gure “El euskara en la toponimia de Burgos”, *Luis Villasanteri omenaldia*, Iker 6, Bilbo, 1992, 324-325).

b) *Espinosa de Juarros*:

Bastikuri (1032. urtekoa; -uri “poblado” osagaiaz aldakia Errioxa Garaiko *Otxanduri*, *Herramelluri*, *Zihuri*, *Ollauri*, *Gipuzuri* (poblado de guipuzcoanos) delakoan tipologiakoa. Burgosen, oraindik, *Iminuri*, *Urizarra*, *Kastiku-ri*, *Nafarruri* (poblado de navarros, 970. urtean). *Busarana* (bigarren osagaia -arana “valle”, *Gutilarana*, *Arangua*, *Sotarana*, *Zamitarana*, *Lekuarana* delakoetan ematen den bera). *Fuenarre* (lur-saila). *Manzarra* eta *Zarraputxo* (zar- “viejo” osagaiaz). *Zagalaviña* (toponimo hibridoa; lehen osagaia, agian, *zabala*-ren adulterazioa da, baina ez da ziurra; tokizen bera Beloradoko eskualdean *Zalagaviña* metatesiaz).

c) *Ibeas de Juarros*:

Alzena (lur-saila). *Loranko* (lur-saila, 1058. urtean). *Nafarra* eta *Nafarruri* (azken honek “poblado de navarros” esanahia, gentilizio bati atxikia, bestelako *Gipuzuri* (Errioxa Garaian), *Bascuñana*, *Basconcelos*, *Báscones* kontutan izanik. ildoan. Gorago *Kastikuri*).

d) *Pineda de la Sierra*:

Herri honetako toponimoen adierazpena Beloradoko Jabetzako Erregistrotik hartuta. *Arlanzon* (lur-saila eta ibai). *Arrañon* (“Otra en Arrañon de media fanega surca cierzo Rio de las Hermitas “. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 573, 1, 1854. urtea). *Azas* (lur-saila, erreg. 19). *Gustardazo* (lur-saila). *La Lana* (lur-saila, erreg. 23; agian, **La Landa* batetik, *nd* talde kontsonantikoaren soilketaz. *Biarnon Lane* ematen da, *Lande* ordez). *Lapazares* (lur-saila, erreg. 270). *Oiazuelas* (?) (soroa. “Otra en Oyaceluelas de nueve celemines que surca por Solano de Juan Gutiérrez..., tiene un pedazo de prado”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 573,1. Lehen osagaia *oian*- “bosque” daiteke, amaieran -*uela* txikidurazko atzizki erromanikoa duela). *Omezuntun* (?) (lur-saila, erreg. 110). *Pagudoia* (erreka eta baratzea, erreg. 123; azpimarrazekoa -*doi* atzizki ekialdekoa hemen, ohiko -*dui* formularen ordezkoa, ugaritasunezko esanahiaz. Burgosko toponimoetan *Bagadia* (hayedo) *Galardia*, *Sagastia*, *Lanzardias*, *Mamartuia* eta abar. Ikus gure artikulua: Iker 6, 320-321. orr.). *Zalduena* (lursaila; ildo beretik *Zalduendo* herri-izena Burgos eta Arabako lurretan, lat. *saltum*-etik). *Zumulengo* (*Zurrulengo*?, belardia, erreg. 74. “Un terreno prado en Zurrulengo como de dos fanegas de sembradura mas ó menos, linda solano terrenos de Domingo Sebastian”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 573, 5, 1851. urtea).

e) *Villarobe*:

Herriaren izena *Villa* eta *Orobi* (863 urtea) elementuetatik. Tokizenetan aipagarri: *Galarza* (lur-saila, *galar*- “tronco seco”, *Galardi*, *Galarreta*, *Gallarta* delakoetako bera, -*za* ugaritasunezko atzizkia). *Matasutxa* (lur-saila). *Sondaia* (*Sondia*, lur-saila). *Villorabbarri* (lur-saila; bigarren elementuan -*barri*, mendebaleko formula, *Tubarria*, *Etxabarri*, *Txabartena* (*Etxabarriar-tena*?) kasuetan ageri den bera). *Villobarri* (ausaz, *Villorabarriarte* delakoaren sinkopa hemen).

3. *Valdelagunako eskualde toponimikoa*

Valdelaguna-ren eskualdea menditsua da, eta Mencillako mendien eta Arandio mendizerraren babesgune oihantsuan aurkitzen da. Demografia urriko herriskak eskualdean, eta -Belorado, Bureba edo Juarros aldea ez bezala- Santiago-bidea eta komunikabide nagusietatik at geratzen diren lurak bertan. Isolamendu horri esker, Valdelagunako euskal toponimiaren aztarnak Juarros edo Bureba aldekoak baino joriagoak dira, nahiz ez ailegatu Pradoluengo eskualdeko kopurura.

Salas de los Infantes-eko Jabetzako Erregistroan aurkituriko izen anitz dakargu. Urrillako eskualderaino jaisten dira alderdi hontako toponimoak euskal tokizen hegoaldekoenak dira, Errioxako toponimoen luzapen direla Burgos aldeko partean. Aipagarri *Zaballa*, *Zaia* (*La Guardia* litzateke gaztelaniaz), *Larrañe*, *Iberondo*, *Sarri* moduko toponimoak.

a) *Barbadillo de los Herreros*:

Ardibin (lur-saila, 1752. urtea). *Arduisa* (lur-saila, erreg. 9, 29 or. Artxiboko zehaztapenei buruz jakin Valdelagunako toponimoetan lehen zifrak liburua adierazten duela, eta bigarrenak orria. Itxuraz, *Arduisa* toponimoan *-dui* mendebaleko atzizkia). *Garatxan* (lur-saila, erreg. 8, 71). *Guariste* (lur-saila, erreg. 6, 59). *Ituero* (agian, **Iturbero* baten sinkopa; erreg. 118, 70). *Harriet* (mea baten izena, antza, jabearen deitura-bidez etorria; erreg. 8, 123). *Matajabarrena* (lur-saila; *-barrena* “de abajo”; Ezkarai aldean *Aiabarrena* hidronimoa. Osagai beraz, oraindik Burgosko toponimoetan *Gabarne* eta *Metolabarrena*). *Parbolaça* (lur-saila). *Tabarlaça* (lur-saila). *Vizcaína* (lur-saila, erreg. 6, 149, *Vizcaínos* herri-izena ere bada eskualdean). *Zaballa* (lur-saila; erreg. 79, 126; osagai bera *Birzabala*, *Urzabala*, *Rizabal* (Río Zabal ?), *Azabaleko* delakoetan).

b) *Monterrubio*:

Brizes (?) (lur-saila, erreg. 1,48). *Iberondo* (mea, erreg. 2, 16 eta 14, 222; beste mea-izen askotan bezala, tokizenak jabearen deitura adierazi bide du). *Ormatxo* (lur-saila, erreg. 34, 46). *Pagadal* (lur-saila, erreg. 1, 136; *Bagadoi* eta *Bagaza* bezala *pago*-ren ildokoa, amaieran *-gaztelaniar -al* ugaritasunezko atzizkia (*hayal*, *castañal* delakoena) atxiki zaiolarik, baldin *-*zabal* baten sinkopa ez bada). *Peñate* (lur-saila, erreg. 1, 124). *Txikita* (mea-izena).

c) *Niela*:

Izkapeña (lur-saila, erreg. 35,24). *Txurras* (belardia, erreg. 2, 144). *Zorrakin* (lur-saila, erreg. 3, 124; mugaz bestaldean izen bereko herriska). *Zumakeras* (lur-saila, erreg. 123, 239; Azkue-ren hiztegian *zumake* Bot. Hitzza dator).

d) *Ríocabado*:

Gizkopanas (?) (lur-saila). *Zagalaterre* (lur-saila, 1752. urtean; antzeko ildotik *Zagalaviñas* Belorado aldean).

e) *Beste herri zenbaiteko euskal toponimia* (Barbadillo del Pez, Bezares, Huerta de Arriba y Abajo, Tolbaños de Abajo, Quintanilla, Villagimeno...):

Aranguez (Huerta de Arribako lur-saila). *Arpin* (lur-saila, erreg. 11,75). *Arza* (Huerta de Arribako lur-saila, erreg. 34, 109). *Atorkia* (Villagimenoko lur-saila). *Azkarrio* (Huerta de Arribako lur-saila, erreg. 6, 90). *Azkar* / *ezkar* Bot. “arce campestre”). *Baskuñana* (Barbadillo del Pezko lur-saila, jentilizio bidez **Vasconiana* batetik datorrena). *Biktortxu* (*Victorchu*, Villagimenoko mea, erreg. 1,181). *Erraña* (Huerta de Abajoko lur-saila, 12, 12; agian, gaztelaniazko *herrán*-en ildokoa). *Ezpeleta* (Huerta de Abajoko lur-saila, erreg. 3, 16). *Gabarne* (lur-saila, erreg. 5, 170). *Gabarue* (*Gabarne*?, Villagimenoko lur-saila, 109, 138). *Iruela* (Quintanillako lur-saila). *Larrañe* (Quintanillako lur-saila). *Llanola* (Huerta de Arribako lur-saila, erreg. 277, 171). *Kukurrilla* (lur-saila, erreg. 10, 114). *Matako* (Villagimenoko lur-saila, 109, 138). *Mazkano* (*Azkarro*?, Huerta de Abajoko lur-saila, erreg. 10, 108). *Mendibiri* (Huerta de Arribako lur-saila; Bere aldakia *Mundibiri*; **Mendibiribil* “monte redon-

do” batetik, agian, baldin eta bigarren osagaia *-bidea* (*bidia*, *biria*) ez bada). *Ojajara* (Huerta de Arribako lur-saila, erreg. 4, 208; bigarren elementua izan daiteke **zarra*, gaztelaniar fonetikak ezarritako belareztapenez, *Montejarra* (?), *Ezkijarana* (*Ezkizarana*) kasuetan bezala). *Ormazas* (Tolbaños de Abajoko lur-saila, erreg. 67. 1042 urteko tokizena “Id est dimidium monasterii, que est situm in rivulo de Ormaza, pernominata ecclesia Sancta Maria semper Virginis”). Cartulario de San Pedro de Arlanza, 84 or., bezer.71. Dena den *ormaza*-ren etimologia erromanikoa da, lat. *formacea* batetik). *Puente de Riobaria* (Tolbaños de Abajo, erreg. 99, 50). *Sarri* (Huerta de Abajoko lur-saila; *sarri* “espeso, tupido”). *Tazai* (?) (Bezaresko lur-saila, erreg. 8, 36). *Txinbre* (Quintanillako lur-saila, erreg. 6, 8). *Uria* (Barbadillo del Pezko lur-saila; honen aldaki jatorrizkoa, agian, *Urria* (eta bokalaren irekiera berantaz *Orria*). *Zaia* (Bezaresko lur-saila, erreg. 7, 134; “guardián, La Guardia” esanahiaz). *Zaramala* (Huerta de Arribako lur-saila, 1752. urtea). *Zarragueza* (Huertas de Arribako lur-saila). *Zarzana* ?) (Villagimenoko lur-saila, erreg. 6, 19). *Zazola* (Huerta de Arribako lur-saila, erreg. 4, 224).

4. *Oca eta Bureba aldeko toponimia*

Juarros aldea bezala, Burebako lurak lautadan -eta Arandio mendizerra eta toki garaietatik urrun- aurkitzen dira, eta behin bateko euskal toponimo hipotetiko anitz itzali egin da, nahiz ugariak ziren ala ez ez dakigun. *Bureba* tokizenari *buru* etimologia atxiki dionik ez da faltatu. Bertatik igarotzen zen aintzinako Santiago-bidetako bat, eta horrek jende arrotzen eragina ukan zuen, dudarik gabe, eskualdean aurretiko egoera linguistikoan bere eragina izanzen zuela. Ondorengo toki-izen anitz Merino Urrutia-ren zerrendakoa da, Brivieskako Jabetzako Erregistrotan gaur egun lekuko murrizt geratzen da.

a) *Aguilar*:

Aldaro (lur-saila). *Belea* (*Velea*, “cuervo”, Velasco *belatz* gehi —(s)ko txikidurazko atzizkitik datorren bezala).

b) *Berzosa de Bureba*:

Anpudia (lur-saila). *Atxa* (lur-saila, itxuraz, *atx-* “roca”, mendebaleko euskararen bustidura eta monoptongapenez).

c) *Espinosa del Camino*:

La Ongiza (lur-saila, erreg. 1558). *Larrehederra* (lur-saila. *Larre* “dehesa, pastizal”, *-ederra* “hermosa”; tokizena 869. urtekoa da).

d) *Oca*:

Arreture (*Arreiturre*?, 1189 urtean bere testigutza; fonetikoki bigarren osagaien *-iturre*, azken bokalaren irekiera berantaz, gatelaniaren eraginez. Villafrancako toponimoetan izen bera). *Auca* (Gaurko *Oca*-ren jatorrizko formula latina, monoptongapen berantarik gabe. Bere lekukotza 1142. urtekoa da. “Et ad cadenda ligna ad domos edificandas in montibus de Aucha et in montibus de Puras semper per omnia secula...”). Cartulario de San Millán de la Cogolla, 313. or.). *Eguzuza* (lur-saila); *-za* atzizkiak Burgosko toponimoetan oraindik *Usarza*, *Otaza*, *Isasa*, *Arza*, *Anduisa*, *Gitabelaza*). *Zaratorre* (lur-saila).

d) *Prádanos de Bureba*:

Batxaiz (lur-saila). *Zangureba* (lur-saila).

e) *San Felices de Oca*:

Larrehederra (goian ekaririkoa bera, “dehesa hermosa”; 869 urteko toki-izena). *Mantelle* (lur-saila). *Zarratona* (lur-saila, 869. urtea).

f) *Villafranca Montes de Oca*:

Araluzia (lur-saila, *aran-* “valle” eta *-luzea* “largo” elementuetatik). *Arreiturre* (ikus goian tokizen bera; lehen osagaia *arr(i)-*, agian; bigarrena *-iturri*). *Azkarro* (lur-saila, erreg. 1998. *Azkar* “arce campestre”; ildo beretik *Azkarrio*. *Ezkeragaña*, *Ezkarros*, *Eskarriturrias*, *Eskarna*). *Ezkarro* (erreg. 866; aurretikoaren aldakia; amaierako *-o* bokalak gaztelaniar fonetikaren eragina du, agian, *zumar* / *zumarro* / *zugarro* (olmo, Nafarroan) delakoan bezala; izenlagunetan ere euskara- erdarako kokagunetan baldar / *baldarro*, txar / *txarro* alternantziak, genero erromanikoa islatuz).

5. *Beste euskal toki-izen tipi eta nagusi zenbait.*

Hurrengo zerrendan goian ez emaniko beste zenbait euskal toponimo (oronimo, antroponimo, oikonimo edo jentilizio...) eskaintzen dugu. Anitz hemen aipaturiko eskualdetatik urrun aurkitzen dira, hots, Arandio edo La Demanda mendizerraren adardurretatik aparte. Aipatzekoak, besteen atean, *Abasolo*, *Egiluz*, *Urizarra* (poblado viejo), *Itxaso* (retamal), *Etxebarria* (casa nueva), eta toponimia nagusian *Urbel*, *Zumel*, *Urria*, *Urkiza*, *Urrez*, *Zalduendo*, *Báscones*, *Zurbitu*, *Lara*, *Iminuri* gisakoak. Kasuan kasu aipatuko dugu.

Toponimo tipi zenbait:

Aiabarrena (*Oianbarrena?*, Ezkaria aldeko hidronimo bera. Behar bada, *Oja* toponimoaren (*Rio Oja*, *Rioja*-ren) erro etimologikoan euskal *oia(n)* “bosque” delakoa, belarizazio berantaz, hots, gaztelaniar fonetikaren eraginez, **Oja(n)* bihurtua; beste bidea *otza* “frío” edo *osa* / (*otx(o)a* “lobo” litzateke; azterkizun geratzen da). *Abasolo*, *Egiluz* (“ladera larga”, baldin *eluts* “lugar de umbría” ez bada bigarrena). *Etxebarria* (“casa nueva”). *Itxaso* (“retamal”, *isats-* etik Bot.). *Oiabarne* (*Oianbarren?* “bosque de abajo”). *Salazar* “palacio viejo”. *Urizarra* “poblado viejo”. *Zaldo* (“lugar boscoso”, lat. *saltum*, amaiera berantaz bokalearen irekieragatik), *Zuazo* (“arboleda”).

Toponimo nagusiak:

Arlanza (ibaia; lehen osagaian eman daiteke *ar-* “piedra” erroa; ildo berekoa *Arlanzon*). *Arraia*. *Basconillos* (*Bascón* / *vascón* gentilizioari loturiko tokizena, bes-telako *Bascuñana* (*Vasconiana*), *Bascónes* (*Vascones*) ahantzi gabe; jakina denez, ertaroan euskaldunek ere lur eremuak birpopulatu zituzten mairuen eraso desageretzean). *Báscones* (herria; *Vascones*-en ildokoa, azentuaren lerradura lehen silabara igaro delarik. “Et ad illa serna de Maria Pelaiz de Val de laguna, et Val de Lacuna a summo Val de Bascones”. Cartulario de San Pedro de Arlanza, 1154. urtea, 204. or, bezer. 85-86). *Bascuñana* (**Vasconiana* baten formula bustia). *Eterna* (*Heterrena*-ren laburdura, 945. Urtean). *Ezkerra* (*ezker* “izquierdo. “...Villam nomine Ezkeram cum suo monasterio, reliquias S. Martini ferente...”). Cartulario de San Millán de la Cogolla, 978. urtea, 71. or., bezer. or. 149. Orobat, 1062. urteko lekukoa: “Et unam vicem molino in molino de Ezkerra: iuxta basilicam S. Martini unum linare...”. Cartulario de Sam Millán de la Cogolla, 179. or., bezer. or., 96). *Galarza* (herri despopulatu, *galar-* “tronco seco” delakotik). *Galbarna* (despopulatu; *galbar* “calvo, pelado”, *Galbarruri*, *Galparsoro* delakoetan ematen den bera; bigarren osagaia

ar(a)na / arna “valle” eman daiteke, *-barrena*-ren sinkopa arbuia (gabe). *Herramel* (ertaroko antroponimo ezaguna, bere ildotik Errioxa Garaian *Herramelluri* (poblado de Herramel). *Ibeas de Juarros* (herria). *Iminuri* (ausaz, antroponimo baten ildokoa; bigarren osagaia *-uri* “poblado”; bide beretik *Nafarruri*, *Urizarna*, *Bastikuri*, *Ollauri*, eta abar. *Isar. Lara* (*Larr(e)a* baten aldakia, agian, dardarkariaren soilketaz). *Olea* (*ola* “cabaña”, “ferrería”, “lugar en general”). *Oña* (erroa *oin* “pie”, *Oñati* kasuan bezala. *Onia*, hala ere, etor daiteke *Aunia* (*Onia*) antroponimo latino batetik). *Ura* (“...Et ipsum monasterium in territorio Ure; scilicet, fontes, molendinos, arbores, vineis, agros, ortos...”. Cartulario de San Pedro de Arlanza, 1042. urtea, 77. or., bezer. 21). Pedroso del Río *Urbel* (hidronimoa *ur-* “agua” eta *-bel* “oscuro, negro” elementuetatik). Santa Cruz del Valle *Urbion* (toki-izenean erro probableak *ur-* “agua”, *-bi* eta *-on* osagaiak). *Urbel* del Castillo. *Urrez* (“avellano”, 1071. urteko toponimoa. Itxuraz, mendebaleko formula islatzen du, hau da *urre(i)tz / urretx* -eta ez *urriz* ekialdekoa-. “Et concedo tota mea hereditate que est in valle de Aorrec, ad integrum trado et concedo”. Cartulario de San Pedro de Arlanza, 1047. (?) urtea, 153. or., bezer. 69. L. Serrano ikertzaileak testuari hurrengo eransten dio: “Gamoncillo y Urrez, en la sierra de Pineda, no lejos de los orígenes del Arlanzón”. Ibidem, 153. or.). *Urria* (herria; **urrea* “avellana”, bokalaren ixturaz hemen). *Urkiza* (herria; *urki* “abedul”, gehi *-za* ugaritasunezko atzizkia). *Urrilla* de Quintanilla (agian, *urria / urrea*-ren ildokoa, *-illa* txikidurazko atzizkia erantsia duelarik). *Vizcaínos* (*Bizkaia*-ren delakoaren ildotik, gaztelaniz ohikoa den jentilizioa erakutsiz. “Capannas sua divisa cum suas hereditates; et un alfoz de Lara... et Gamones, et in Vezcafinos sua divisa, et in Barbatielli de Ferreros sua divisa...”. Cartulario de San Pedro de Arlanza, 1062. urtea, 131. or., bezer.19). *Zaias* de Bascos (*zaia* “guardián”; amaieran gaztelaniar pluralgilea; *Guardia*, *Espejo* eta *Espejón*-ek esanahi bera gaztelaniar toponimian esparruan; bere ildokoa Araban *Zaitegi*). *Zalduendo* (**Zalduendo*; *zaldu-* lat. *salturn* eta *-ondo* elementuetatik). *Zazuar*. *Zurbitu* (probableki, *zur* “madera” delakoaren ildokoa, *Zumel* den bezala).

III.- TOPONIMIOETAKO LEXIKO ZENBAIT.

Tokizenetan ematen diren osagai berezietz beste artikulua batean ekarritakoei (Ikus *Iker* 6, art. c.) beste batzuk, kasuan kasu, aldaki fonetikoak -eta euskara aspaldian itzalia dagoen eskualdean jazotako adulterazio, urradura eta bestelakoak kotuan hartuta- erantsi nahi genituzke. Goiko zerrendari, laburpen gisa, lehen ez emaniko tokizenen elementu lexikalak erantsi nahi genizkioke. Esan bezala, osagai anitz mendeen poderioan desitxuratzen etorri da, eta hortik zenbat aldakitako formula okerrak eta fonetismoak. Hona, laburzki, bilakaera esanguratsuenak: **1)** *U* bokalaren irekierak (*u > o*): *Obias* < *Ubias*, *Torburu* < (*I*)*torburu*. **2)** *I* bokalaren irekierak (*i > e*): *Mazeturre* < *Maziturri*, *Txabarre* < (*E*)*txabarri*. **3)** Lehen bokalaren, dardarkari auretiko protetikoaren eta beste kasu batzuen erorketa: *Turri/ Turre/ Tur / Iturri* ordeztatik (*Txarriturri / Txarreturre* < (*E*)*txarriturri* ?), *Turralde* < *Iturralde*, *Txaurte* < (*E*)*txaurte*. **4)** Gaztelaniar preposizioaren aurrezarpena, *en / a* kasuetan: *Aniela* / < *A Niela* ordeztatik. **5)** Artikulu erromanikoaren deglutizioa: *Laiza* < *La Aiza*, *Landorla* < *La Andorla*. **6)** Artikulu eromanikoaren interpretazio okerragatik lehen silabaren bereizketa: *La Rea* < *Larrea*, *La Remendia* < *Larremendia*.

Toponimoetan kausitzen den erro lexikalen (eta atzizkien) zabaldura handia da. Beste askoren artean, hurrengoak aipagarri: *Aitz / atx*, *aldai*, *arana / arna*, *arte*, *bea / bia*, *bizkar*, *buru*, *etxa / (e)txa*, *guti*, *iturri / tur/ tor*, *ur*, *uri / uli / ulli*, *zalaia / zelaia*,

zarra. Eta atzizkien artean *-aga*, *-ana* / *-ano*, *-di* (*-dui*), *-eta*, *-ola*/*-olla* /*-ula*-/ *ulla*, *-za* /*-zu*.

Goian aipaturiko terminoez gain, *luze*, *alde*, *ezki*, *urritz*, *aritz*, *ametz*, *isats*, *ih*, *abar*, *gari*, *bide*, *ibar*, *sarri*, *zalu*, *zorrotz*, *zulo*, *erreka*, *putzu*, *landa*, *zur* delakoak azaltzen dira (gehienetan beste osagaiei itsatsita, eta dagozkien atzizkiekin).

Esan beharrik ez dago hauetako anitzetan *ea* > *ia*, *oa* > *ua* gisako fonetismoak ematen direla. Orobat aipatzekoa gaztelaniar fonetikaren eragin zuzena, *s* > *j* gisako bilakaeran, adibidez, Ezkizarana > *Ezkijarana*, Kanpozarra > *Kanpojarra*, Arabako Basalde > *Bajalde*, Basauri > *Bajauri* eskualde, aspaldi, gaztelaniaztatuko kasuen araberakoa-.

1) ALDE (aldia): *Aldabia* (Pradoluengo), *Aldaro* (Aguilar), *Arralde*, *Garalde* (Espinosa del Monte), *Garralde* (*Garalde?*, San Clemente), *Kobaldia* (Espinosa del Monte), *Onaldia* (Santa Cruz), *Rozaldia* (Santa Olalla), *Turaldea* (*Iturraldea*, Santa Cruz), *Zumalde* (Santa Cruz), *Zuraldea*, (*Iturraldea* (Pradoluengo)).

2) BAGO: *Bagadia* (Fresneda), *Baganeda* ?) (Espinosa del Monte, 1849. urtean, gaztelaniako *-eda* herskari ozena duelarik, *eta*-ren ordeztuz), *Pagadal* (Pagazabal, Monterrubio), *Pagadoia* (Pineda de la Sierra, hemen mendebaleko formula toponimian, *-dui* /*-tui* ohikoaren ordeztuz), *Mamartuia* (Pradoluengo).

3) BASO: *Basardia* (Santa Cruz), *Baserguna* (Pradoluengo), *Basergune* (*Basarguna*), *Batxaiz* (*Basagaitz?*).

4) BIDE: *Balleunbidia* (agian, *Valleumbria*-ren sasi-formula, San Miguel de Pedroso), *Bidaran* (Valmala), *Bidutxo* (Valmala), *La Rrabidea* (**Larrabidea*, Fresneda), *Saldebidea* (Fresneda), *Zurbida* ?).

5) EZKI: *Ezkinza* (Ezkiza?), *Eskiza* (Fresneda eta Santa Cruz), *Ekizaga* (Ezkizaga?, Santa Cruz), *Eskizaio* *i*) (Santa Cruz), *Ezkizaga* (Santa Cruz), *Ezketa* (*Ezkieta?*, Fresneña), *Ezkijarana* (**Ezkizarana*, gaztelaniaren belarizazio berantaz).

6) BOTANIKAKO beste adibide zenbait: *Abarza* (*abar*-etik, ramaje, Santa Cruz), *Ameza* (*Ametza*), *Aritxa* (*Aritza*, Avellanosa), *Arizeta* (Fresneda), *Berraute* (*Berroeta?*, Santa Cruz), *Ezpeleta* (Huerta de Abajo), *Galsora* (Fresneda), *Gitabelarza* (Pradoluengo), *Iraza* (*Irrazas*, Ezkerria), *Isasa* (*Isaza*, “retamal”), *Itxaso* (“retamal”), *Izagaña*, *Kirizia* (*Gerezia?*), *Lizar* (Fresneda), *Otaza* (Arlanzón, 1752. urtea), *Sagastia* (Espinosa del Monte), *Sarasitas* (*sarats* “sauce”, pluralgile arrotzaz), *Urkiza* (“lugar de abedules”), *Urria* (“avellana”), *Urriza* (Fresneda, “avellano”), *Urrez* (*Urrezti*, “avellano”), *Zamaka* (*Zumake?*, Valmala), *Zaramala* (Huerta de Arriba, 1752. urtea), *Zumakeras* (“zumaque”, Niela), *Zumalde* (“mimbre”, Santa Cruz).

7) GAITZ (GAIZA): Kontuan edukitzekoa amaierako afrikariak ez direla gordetzen maiz toponimoetan, ohitura hori ez baita gaztelaniari dagokion ñabadura (honela *Zorroza* *Zorrotza* ordeztuz, *Gaiza* *Gaitza* ordeztuz). *Burgaiza*, *Kañagaiza* (Fresneda), *Batxaiz* (*Basagaitz?*).

8) GUNE: Kasuren batean, *-gune* *-gurena* sinkopa izan daiteke. *Baserguna* > *Basergurena* ?), *Barkasguna* (Santa Cruz), *Mugargunea* (Pradoluengo), *Renguna* (Santa Cruz).

9) IBARRA: *Ibarra* (Fresneda), *Ubarra* (*Ibarra?*), *Ibaturroz* (bigarren osagaia, agian, *iturri*(*iotz*)).

10) KANPO: *Kanpoa* (*de Maranas* ?, Pradilla), *Kanpojarra* (Villagalijo, probableki **Kanpozarra* batetik, aurredotsala gaztelaniak eraginda belare bihurtua, Villagalijo), *Kanpua* (Fresneda), *Kanpugaina* (Ezkerra, Santa Olalla), *Kanpuzkina* (Rábanos, Ahedillo).

11) KOBA: *Kobaldia* (Espinosa del Monte), *Kobatxo* (Santa Cruz).

12) LANDA: *La Lana* (ausaz, *Landa*-ren sinkopa, Biarnoko *Lane* tokizena bezala, *nd* > *n* murriztuz), *Landabia* (Pradoluengo).

13) LUZE: *Aluzea* (hasierako bokalak norabidea adierazten duen gaztelaniazko preposizioa dirudi, *Aneila* < A Neila kasuan bezala, Santa Cruz), *Bitaluzena*, *Egiluz* (bigarren elementua *eluts* “lugar de umbría” ez bada), *Luzea* (Santa Cruz), *Maugaluzea* (*Mugaluzea*?, Eterna, Avellanosa), *Rastroluzea* (*Resteluzea*, *Restauluzea*, Garganchón), *Restuluzea* (Soto del Valle), *Reteluzea* (Santa Cruz), *Solazea* (*Sololuzea* ¿), Pradoluengo), *Valuzea* (Puras), *Zabaluzea* (Santa Cruz), *Zelaluzea* ?, Santa Cruz), *Zertuluzea* (*Restuluzea*?, Soto del Valle).

14) MOTZ: *Motxo*, *Valderrimotxa* (Eterna-Avellanosa).

15) MUGA: *Maugaluzea* (*Mugaluzea* ?), Eterna-Avellanosa), *Mugaña* (*Mugagaña*?, Pradoluengo), *Mugargunea* (Pradoluengo).

16) ORDOKIA: *Ardokia* (*Ordokia*?, Pradoluengo), *Ordokia* (Garganchón), *Orkidia* (agian, *Ordokia*-ren metatesia, Pradoluengo).

17) HORMA: *Ormatxo*, *Ormazas* (Tolbaños de Abajo).

18) REKA, RE- (*Erreka*): Dardarkari aurretiko euskal protetika maiz erortzen da gaztelaniaren ukituan, *Errota* > *Rota*, *Rotaetxe*, *Roteta*, *Erreka* > *Reka*, *Rekarte*, *Rekalde* kasuetan bezala. *Erreka*-ren ildotik *Reka* eta *Rekanda* (agian, *Rekonda(a)*, Fresneda). *Re*-, aldiz, *río*-ren erredukzioa edo bokale aldaketa formula irekia hartuz *Retuerto* (río torcido) hidronimoan bezala. Ildo horretatik *Regutia* “río menor”, *Riogutia*, *Rizabal* (*Riozabal*), *Ritarte*a (**Riotarte*a, Santa Cruz).

19) SARRI: *Sarri* (Huertas de Arriba, 1083. urtea), *Sarria* (Puras), *Sarriko* (Valmala), *Zarrias* (*Sarrias*, Santa Cruz).

20) TXIKI: *Maritxikua*, *Txikita* (Monterrubio), *Maritxikua*, *Txikitos* (Valmala).

21) URRITZ / URRE(I)TZ: *Urreizas*(?), *Urrez* / *Urresti* (1071. urtea, *urre(i)tz* / *urretx* mendebaleko formulatik, itxuraz), *Urria* (herria).

22) ZAI: *Gubilzaia* (agian, *Gubilzalaia*?, Pradoluengo), *Zaia* (Bezares), *Zaias* de Bäscones, *Zaizola*.

23) ZALDU: *Zaldo*, *Zaldua* (Fresneda), *Zalduena* (Pineda de la Sierra), *Zalduendo* (herria), *Zalduka* (ausaz, *Zabaluka*), *Zaldu* (lat. *saltum*-en iturrikoa).

24) ZORROTZ: Gehienetan, azkeneko silabak afrikaziorik ez du gaztelaniar fonetikaren eraginez. *Mendiko Zorroza*, *Zorzas* (*Zorrotzas*?), *Ginzorzas* ?).

25) ZULO: *Alzulagaña* (agian, **A Zulagaña* da, lehen bokala norabidezko preposizioa baino ez dela), *Zulagaña* (Pradoluengo), *Zularna* (*Zularana*?, Eterna), *Zuluzea* (*Zuruzea*?).

26) ZUR: *Zuazo* (herria), *Zumel* (*zur*- eta *-bel* osagaietatik), *Zurbida*(?), *Zurbitu*.

Goian emaniko toponimoen zerrenda luzeak, zalantzarik gabe, gure hizkuntzak Burgos probintziako ekialdeko lurralde berezi batzuetan ertaroan, gutienez, ukaniko presentziaren lekukotza ziurra eskaintzen digu. Lan honetan garbi utzi dugu Burgos probintziako euskal toponimoak Errioxakoen luzapen direla, batez ere, Arandio edo La Demanda mendizerraren babesean -eta hegoalderako Valdelanagunaren eremu menditsu isolatueta-. Bestalde, badakigu historikoki lur horietako anitz Logroñoko probintziaren parte izan zirela mende askotan administratiboki, eta eskualde osoa Nafarroako erreinuaren zati izan zela ertaroko denboraldi luze batean.


Izendegi hauen bitartez euskarak egun pairatzen dituen mugak erlatiboak direla garbi utzi nahi dugu, ezen bere presentzia Araba baino askoz beheragoko lurretan baitesia geratzen da, eta Errioxan euskal tokizenen kopurua Ezkaraien -Haro edo Santo Domingo de la Calzada aldeko lautadetan baino- sarriagoa da. Euskararen mapek, bada, beti hegoaldera -Burgosko mugetara ere- luzatzen ikasi behar lukete nabarmenago bertako euskal toponimioen lekukotza present edukiz.

BIBLIOGRAFIA


- ALARCOS LLORACH, E. (1950). *Apuntaciones sobre toponimia riojana*. [Berceo XVI].
- ALVAR, M. (1976). *El dialecto riojano*. Edit. Gredos.
- APRAIZ, Odón (1920). *Un caso de fonética histórica estudiado en la toponimia alavesa*. Alternancia de l-r. RIEV XI.
- CARO BAROJA, J. (1945). *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Salamanca.
- CIÉRBIDE MARTINENA, R. (1980). *Toponimia navarra, historia y lengua*. Pamplona.
- _____ (1976). "Toponimia del Becerro antiguo de Leyre". *FLV*. VIII. 237-284.
- COROMINAS, J. (1972). *Tópica hispérica*, I-II, Madrid.
- CORONA BARATECH, C. E. (1947). *Toponimia navarra en la Edad Media*. Huesca,
- DAUZAT, A. (1926). *Les noms de lieux*. Paris.
- ELEIZALDE, L. (1963). Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas. *BSBAP*. XIX, 241-273 eta *BSBAP*, 1964, XX, 103-159.
- IRIGOYEN A. (1986). *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*. Bilbao. Ed. Universidad de Deusto.
- JIMENO JURÍO, J. M. (1986). *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*. Onomaticon Vasconiae, 1, / R.A.L.V. / Euskaltzaindia.
- JUNGEMANN, FR. H. *La teoría del sustrato y los dialectos hispanoromances y gascones*. Madrid. Gredos.
- LACARRA, J. M. (1930). "Onomástica vasca del siglo XIII", *RIEV* XXI 247-254.
- _____ (1965). *Colección Diplomática de Irache (956-1.222)*. Zaragoza.
- LÍBANO M. A. *Toponimia medieval del País Vasco*, Euskaltzaindia, (4 zenbaki).
- MAÑARICÚA, A. (1963). *Obispados en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta fines del siglo XI*. Vitoria.
- MARTINEZ RUIZ, J. J. (1979). *Catálogo documental de la Real Colegiata de Roncesvalles (1.301-1.500)*. Pamplona.
- MENÉNDEZ PIDAL, R. (1942). *Toponimia prerrománica hispana*. Madrid.
- MERINO URRUTIA, J. B. (1950). *El vascuence en la Rioja y Burgos*, [Berceo XX].
- _____ *El vascuence en la Rioja y Burgos*. San Sebastián.
- MUJIK, L. M. (1982). *Latina eta erromanikoaren eragina euskararen*. Edit. Sendoa. (tesis doctoral).

- _____ (1991). "Toponimia Vasca en Burgos". *XI Congreso de Estudios Vascos*, 423-433.
- _____ (1992). "El euskara en la toponimia de Burgos (nuevos testimonios)". *Luis Villasanteri omenaldia*, Iker 6, 1992, 311-347, R.A.L.V. / Euskaltzaindia.
- PÉREZ DE URBEL, FR. Justo. (1970). *Historia del Condado de Castilla*, 3 liburuki, Madrid.
- RAYMOND, Paul. *Dictionnaire topographique, Béarne-Pays Basque*. Edit. Ekaina.
- RODRIGUEZ R. DE LAMA, ILDEF. *Colección Diplomática Medieval de la Rioja*, 3 liburuki. Diput. Prov. de Logroño.
- ROHLFS, G. (1952). "Sur une couche préromane dans la toponymie de Gascogne et de l'Espagne du Nord", *RFE XXXVI*, 209-256.
- SERRANO, L. (1925). *Cartulario de San Pedro de Arlanza*. Madrid.
- _____ *Cartulario de San Millán de la Cogolla*. Madrid.


EUSKAL TOPONIMIAREN ESKUALDEAK



OJA IBAIA ETA BERE ADARRAK



-URI ATZIKKIA



1. Aldauri
2. Eusturia
3. Maruri
4. Larrauri
- 5.
6. Iberruri
7. Basauri
8. Gocuria
9. Duburi
10. Iguria
11. Ceanuri
12. Lecanduri
13. Gujuli
14. Sarricohuri
15. Aberásturi
16. Imiruri
17. Atauri
18. Marsauri
19. Urturi
20. Obecuri
21. Bajauri
22. Basauri
23. Bardahuri
24. Cocorrori
25. Bardauri
26. Fotañuri
27. Galárruli
28. Hasanahuri
29. Naharruli
30. Oihuri
31. Oihauri
32. Ochanduri
33. Herranehuri
34. Gipuzauri
35. Echauri
36. Bascuri
37. Albeuri
38. Ochanduri
39. Ellacuria, c.
40. Ellauri, c.
41. Gocuria, c.
42. Aqueuri, c.
43. Guyuria
44. Canduria
45. Yeuri Barri
46. " Golcoa
47. Basori, c.
48. Feruri
49. Gasauri
50. Oqueluri
51. Gokouria
52. Obecuri
53. Gogenuri

-ARAN, -ARANA, -ARNA

GUTILARANA	(Villagalijo), reg. 493
HARANNA	(San Clemente), arch. prov. r. prop. leg. 1654, 20
IBAURANA (?)	(Ezkerria), reg. 946
INAGORANA	(San Clemente), arch. prov. r. prop. leg. 1654, 20
KANARANA	(Santa Olalla), arch. prov. leg. 651, 4
KRUZARANA	(Kruzagaia?) término
KULLARANA	(Ezkerria), reg. 693
LARZIKOARAIN	(Pradoluengo) término
LEKUARANA	(Pradoluengo), reg. 3949
LIBARDARANA	(Pradoluengo) término
LIKUARANA	(Pradoluengo), reg. 265 arch. prov. leg. 577, 35
LINARAMA	(Pradoluengo), reg. 497
MANRANGUTIA	término
MANTXANKOARANA	(Santa Olalla), reg. 451
MATXANGUARANA	(Villarejo), arch. prov. r. prop. leg. 712, 7
MUGRANA	(Mugagaia?) (Puras), reg. 82
MUIJARANA (?)	(San Miguel de Pedroso)
OKARANA	(Puras), reg. 492
PATALARANA	(Fresneda)
PULLARANA	(Eterna-Abellanosa), reg. 349
SENTRARANA (?)	(Pradoluengo), reg. 1257
SOTARANA	(Fresneda)
SUSARANA	(San Clemente), reg. 2996
TIKUARANA	(Artikuarana?) término
TURRIANAS	(Turizarras?) (Pradoluengo), REG. 690
TXARANA	término
TXOBAHARAN	(San Miguel de Pedroso)
URDINARANA	(Pradoluengo), reg. 1069
UNTIXURANA	(Pradoluengo), reg. 2820
UTARAN	término (Santa Cruz), reg. 1849, 23, año 1752
UTILLARANA	(Gutillarana?) (Pradoluengo)
UTXARANA	(Pradoluengo), reg. 809, arch. prov. leg. 577, 25
VALDERANA	(Val de Arana?) término
ZAGUETUARA	término
ZAMITARANA	(Villafraanca Montes de Oca)

ALIERANA	(Pradoluengo), arch. prov. r. prop. leg. 755, 33
ALIKUARANA	(Pradoluengo), reg. 207
ALTUGARAN	término
ARALUZIA	término
ARANA	término
ARANANA	(Pradoluengo), reg. 1840
ARANARI	(Pradoluengo), reg. 555
ARANAS	(Tosantos), reg. 1134
ARANDONA	(Santa Cruz)
ARANGUA	(Rábanos), reg. 119
ARANGUEZ	(Arangiza?), término
ARANGURZA	(Aranguña?) término (Espinoso del Monte), arch. dip. leg. 696, 16 ecl., año 1752
ARANKKIZA	término (Valmala) arch. dip. leg. 2162, 82, año 1752
ARANOSO (?)	(Pradoluengo), arch. dip. leg. 1422, 64, año 1752
ARRAÑON (?)	(Pineda de la sierra), arch. prov. r. pro. leg. 573, 1, año 1854
ARREARANA	(Espinoso del Monte)
ARTIKOARANA	(Puras), reg. 494
ARZERANA(?)	término (Espinoso del monte), arch. dip. leg. 686, 20, año 1752
BENDROKARANA (?)	(Pradoluengo), REG. 1258
BEZIZARANA	(Pradoluengo)
BIDARAN	(Valmala), reg. 429
BITARANA	(Valmala), reg. 684
BITXARANA	(Pradoluengo), reg. 695 arch. prov. r. prop. leg. 577, 25
BUBARANA	(San Miguel de Pedroso)
ESKUIARANA	término
GALLARAMA	(Fresneda), reg. 1558
GALLIKARANO	(-Arana?) (Pradoluengo), arch. dip. leg. 1422, 66, año 1752

-(I)TURRI, -(I)TURRU, -(I)TUR/ ((I)TOR

ANDELETURRIA	(Santa Olalla), reg. 1583
ANDETURRIA	(Andeliturria), término
ANTOLATURZA	(-Iturza?) término
AZEKOTURRE	término
CETURRI	(La Iturria) (Villagalijo), reg. 1532
ESKARRITURRIAS	(Puras) término
FUENTETURRIA	fuelle
FUENTORILLAS	(Fuen-iturrias?) término
IBATURROZ (?)	término
ITUERO	(Iturbero?) (Barbadillo de los Herreros), reg. 118, 70
ITURBERO	(Pradoluengo) fuente
ITURBURU	(Santa Cruz) fuente término
ITURRATE	término
ITURRI	fuelle (Santa Olalla), reg. 2408
ITURRIA	término, fuente
ITURRIOZ	término
ITURRIOZA	(Turriza) (Pradoluengo) fuente
KURTURRIA	
LAMETURRIA	(Laminiturria?) (Espinosa del Monte), reg. 1760
LAMITURRIA	(Laminiturria?) (Espinosa del Monte), arch. dip. 696, 60, año 1752
LETURRIAS	término
MAZETURE	(Maziturre) (Rábanos), reg. 544
MAZETURRE	(Maizturre) término
MAZETURRI	término
MAZITURRI	(Maiturri) (Garganchón) término fuente
MEUTTIA	(Laminiturria?)
TUBARRIA	(Iturbarria?) (Eterna-Abellanosa), reg. 509
TURBERO	(Iturbero) (Pradoluengo) fuente
TURRALDEA	(Iturraldea) (Santa Cruz), reg. 445, arch. prov. r. prop. leg. 637,13
TURRIARANAS	(Turriazarras) término
TURRIOZA	(Iturriotza) fuente término
TURRIDA	(Turriola?) (Santa Cruz), reg. 364
TURRIOZARRAS	(Pradoluengo) término
TURRIZARRAS	(Iturrizarras) (Pradoluengo), reg. 619
TURROZA	(Iturrotza) (Fresneda), arch. dip. leg. 716, 6, año 1752
TURRUZAGA	(Iturrizarra) (Pradoluengo), reg. 1144
TXARRETURRE	(Santa Cruz), reg. 141
TXARRITURRI	(Valmala), reg. 295
URRIZARRAS	término
ZARRAKATURRIAS	término
ZETURE	término
ZURRIAS	(Iturrias?) fuente